

# ...eta Kitto!

2019-XII-20

1123 zkia.

E  
EIBAR

## Mimoz egindako “opariak”

Zorionak eta  
urte berri on!!

# EUKI

- LEGEZKOA
- ZERGAZKOA
- FINANTZARIOA
- LAN ARLOKOA
- ENPRESEN BALORAZIOA

[www.euki.com](http://www.euki.com)

📍 Ifarkale, 1 behe. Eibar 📞 Tel: 943 204 291 ✉️ [asesoria@euki.com](mailto:asesoria@euki.com)



# IRAZABAL

---

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatu.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatu.  
**Autran Institutua. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

**Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak**

**JARRAI IEZAGUZU**

**f Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **[www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - **[www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)**



Euskara Elkarte

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkarte.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
J.L. Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**  
Malen Jainaga  
eta Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

**TELEFONOA:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Iñaki Lizarraga

**BANAKETA-ARDURA:**  
Mohammed El Ghabali

**TIRADA:** 8.200 ale

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta intzieren erantzunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA)**

# Eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxienezko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zerbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gaintzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu

iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MORDOILLO.**- Lodia (ore eta likidoetan). "Morokil horrek mordoilluegixa urten dau".

**MORMORIXO.**- Marmarketa, norbaiti buruz txarto esaka jardun. "Mormorixua ez da falta ezkondu zan ezkerik".

Barbaroa, berbotsa. "Errezuen mormorixua eltzen zan geu gengozen lekurañok".

## astean esanak

Londresen aste batzuk pasatu nituen orain dela urte batzuk eta, zaborra jaistera joan nintzenezan, ikusi nuen bazirela berziklatzea nahi zutenendako kontenedoreak eta beste batzuk nahi ez zutenendako. Hau merkatu librea delako. Sudur-puntatik ateratzen zaizuna egin dezakezulako. Ez dugu erretzerik debekatzen? Zergatik ez debekatu beste guztia? Neri bost axola lurrauk baina harten badu, 76 urte ditut eta ez dut seme-alabarik. Hemen iraultza bada, behartsuak guri mugikorrek kentzeko izango da, ez besterako!

(MARUJA TORRES, IDAZLEA)

"Hezkuntza eskubidea greba eskubidearen gainetik? `Ez daukat umea norekin utzi´ diote batzuek. Orduan zuk nahiago duzu zure umearekin eguna pasatzen duen, jaten ematen dion eta zaintzen duen pertsona hori prekarizatuta egotea egun batean zuk lanordu batzuk galtzea baino? Beste arlo batera pasatuz, feminizatutako sektoreez hitz eginez, zuk zure gurasoak erresidentziara eramaten badituzu erruduntasun sentimendua izango duzu, baina Ekuadorretik etorri den pertsona bati 600 euro ematen badizkiozu zaintzeagatik inork ez du zalantzan jarriko. Hori krimen bat da: lan bi egin behar izatea bizitzeko"

(ONINTZA ENBEITA, BERTSOLARIA)

"Umorea zentsuratzen dela? Edozein kirteneri ezin da onartu adierazpen askatasunaren izenean, baina zein da onartu daitekeena eta zein ez? Garaiekien marra gorriak aldatzen doaz. *La Manada*, adibidez. Nazka ematen du, baina gero eta kontzienteagoa naiz %99an antzekoa naizela. Gero eta gehiago esaten diot neure buruari: `Andoni, %99an horien antzekoa haiz, kontuz ibili hire %1 hori gordetzen`. Horretarako baliogarriak dira marra gorriak nire buruarentzat. Ez gaude oso urruti haiengatik, eskerrak %1 hori badugun; baina zeure buruari planteatu behar diozu"

(ANDONI EGAÑA, BERTSOLARIA)

## Auzuetako denda txikixak indartzeko plana abiatu dau Udalak

Udalak, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren (EMGI) bidez, **auzuetako denda txikixak** aktibatu eta sendotzeko plana ipiñi dau martxan, *“saltoki txikixen jarduera soziala eta komertziala suspertzeko asmuarekin”* eta, horren barruko neurrietako bat ointxe, Gabonen atarixan gauzatu dabe: Ipuru, Urki, Jardñeta, Legarre, Eibarko ekialdia eta Amaña auzuetako berrogei bat saltokitan aste honetan zeozer erosi daben bezeruen artian txartelak banatzen ibilli dira eta saltoki bakoitzak 100 euroko bost bonu zozketatuko dittu gaur. Saridunak zenbateko hori abenduaren 23tik 31ra bittartian bonua emon detsan dendan bertan gastau biharko dabe. Ekimenaren aurrekontua 20.000 eurokoa da eta Udalak finantziatuko dau osorik.



## Eibartik be Gasteizera jua ziran, 1.080 euroko pensiñuak eskatzera

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako pentsiodunak alkarrataratzia egin eben aurreko astian Gasteizen, Eusko Legebiltzarretik gertu, talde politikueri pensiño publiko duiñen alde egitten daben moziño baten oharra emoteko, eta han egon zan Eibartik juandako pentsiodunen talde bat be. EAEko pentsiodunen dozena bat alkartek Diputauen Kongresura legegintzako ekimen bat bidaltzia exijidu zetsen Eusko Legebiltzarrari, gitxienez 1.080 euroko pensiñuak eskatuta. 5.000 pentsiodun inguruk euren aldarrikapenak babesteko adierazpen instituzionala sustatzeko eskatu zetsen Legebiltzarrari Gasteizen egindako mobilizaziñuan. Idatzixa siñatu eben kolektibua lege proiektuan pensiñuen balixua haunditzia nahi dabe, horretarako gitxieneko KPI erreala kontuan hartuta. Horrekin batera, Europako Gutun Sozialak gomendatzen dabenari jarraituta, gitxieneko pensiñuaren zenbatekua gitxieneko soldataren %60 izatia eskatzen da, eta ho-



rregaittik planteatzen dabe kopuru hori 1.080 eurokoa izatia. Gaiñera, 2011n eta 2013an onartutako pensiño sistemaren erreformen alderdi *“atzerakoia”* indargabetzia be eskatu dabe.

## Primerako jaixa ospatu eben San Andres eskolakuak



San Andres ikastetxeko Guraso Elkartek antolatuta, **Gaboneta-ko Jaixa ospatu eben** aurreko zapatuan eskolan eta antolatzailliak pozarren dagoz lehen aldiz egin dan ekimenak izan daben harrearekin: *“Eskolako famelixen arteko harremanak estutu eta euskeria bultzatzeko asmuarekin antolatutako jaixa izan zan eta famelixen erantzuna ikaragarri ona izan zan, 300 bat lagun egon ziran jaixan, antolatu genduezen ekinzetan (DJ Arnoren eskutik dantzaldixa, aurpegixak margotzeko*

*taillarrak, puzgarrixak, herri jokua...)* parte hartzen. Postre eta bizkotxo lehiaketan 46 partaidek mota eta jatorri ezberdiñetako postriak aurkeztu zitttuen eta irabazliendako sarixak egon ziran. Eguraldixa lagun, giro paregabia egon zan kulturantz eta euskalduna izan zan festan. Guraso Elkartetik eskolako famelixerri eskerrek emon nahi detsaguz bizikidetzaberagarrixa lortzeko hartutako jarreragaittik eta jaixan hola-ko gogo eta indarrarekin parte hartziagaittik”.



## Bittor Sarasketako lantegi zaharreko pareta erori zan martitzenian

Azken astiotan eraisten ari diran Bittor Sarasketa kaleko 1. zenbakiko horma bapatian jausi zan martitzenian, goizeko 10:00ak aldera. Zorionez ez eban inor azpitan harrapau, baiña paretatik jausitako obra-hondakiñak aparkalekuko sarrerira erabat itxi eben eta, dana jaso eta garbittu arte, arratsaldeko lehen ordura arte, ezin izan zan bertatik urten edo sartu. Oin arteko martxan, zutik geratzen zan horma bakarria botatzeko biharrean ari zirala ger-

tatu zan ezbeharrak: eraikiñaren gaiñontzeko hormak porlanezkuak eta, hortaz, askoz senduaguak ziran, baiña azken pareta hau ez zan lantegixana, lehengoko etxe zaharrarena baiña eta, horregaittik zan bestiak baiña askoz ahulagua. Hori dala eta, makiñarekin kolpia emon eta hormaren zati haundi bat berez jausi zan, aldamixo eta guzti. Sustua pasauta eta badaezpada, eskuz segidu dabe zutik geratu zan pareta botatzeko biharrian.

## Ion Fizen "Eskema" erakusketia ikusi leike Museuan

Urtarrillaren 12ra arte egongo da Ion Fiz diseiñatzaile eibartarraren "Eskema" erakusketia Armagintzaren Museuan eta bertan bere diseiñuen zirriborro eta oharrak ikusi leikez lehen aldiz. Horrekin batera, goi-maillako jostintzako soiñeko batzuk be badagoz eta udazken/negurako kolekziño barrirako egin dittuan erropak eta osagarriak saltzeko dendia be ipiñi dabe. Erakusketia eguazten, eguen, barixaku eta zapatuetan ikusi leike, 16:00etatik 20:00etara eta domeketan, barriz, 10:00etatik 13:00era.



## Uni-ko ikasliak Barakaldoko enpresa simulatuko azokan

Uni Eibar-Ermua BHI-n Naziñoarteko Merkataritza ikasten daben Lanbide Heziketako ikasliak BEC-en egon ziran abenduaren 10ian, han egin zan enpresa simulatuko azokaren 10. ediziñoan. Ikastetxetik azaldu dabenez, "Eibar Trading gure enpresia eta beste 35 ikastetxeko enpresak egin genduan bat eta bertan ikastetxien arteko salmentak eta erosketak burutu genduzen. Meenting Point edo topaketia oso aberasgarria eta gure lan esparrurako erabilgarria izan zan". Amaieran, parte hartzera juan ziran ikastetxe guztieri diploma bana emon zetsen.

## autuan

### CARITASERI LAGUNTZEKO TXOSNA

Santo Tomas eguna dala aprobeixautu, bixar txosnia ipiñoako dabe Eibarko Sozialistak Untzagan, 11:00etatik 14:00etara. Txistorra pintxuak, saldia eta edarixak salduko dittue eta batzen daben dirua Caritas alkartiari emongo detse, San Andres elizako bere lokalera doiazeneri laguntasuna emoten segitzeko.

### NAGUSIXENDAKO GABONETAKO AFARIXAK

Gabonak bakarrik pasau bihar dittuen nagusixendako afarixak antolatu dittu Udaleko Nagusixen ziñegotzitzak abenduaren 24 eta 31rako. Egun bixetan afarixa 20:00etan hasiko da, San Andres zaharren egoitzan, eta parte hartzera animatzen diranak zuzenian oiñez juan leikez edo, bestela, etxian jaso eta afalostian bueltan eruango dittue. Izena emoteko Gizartekintzara juan (Portalea, 4. pisua) edo telefonoz deittu leike (943708440).



**MIKEL ARRILLAGA**

## Gabonak familian

Nafarroara iritsiko naiz abenduaren hogeita zortzian, Lezaun herrian etxe ederra alokatu baitugu hamabi lagunek, urteari berea elkarrekin emateko. Mendian ibiliko gara egunez, eta solasaldi ahaztezinak izango ditugu iluntzeetan beheko suaren bueltan. Merchita etorriko da aurten ere, hirurogeita hamalau urteko emakumea. Zamoratik etorri eta bizitza osoa lanean eta borrokan, mundu justuagoaren alde; Podemos zalea bera. Kepa ere gurekin izango da. Lanari utzi eta bizitza erabaki zuen. Ez du batere haragirik jaten, alkohola usaindu ere ez; higienista amorratua baita. Gu, berriz... Tere, haren bikotekidea, taldearen lokarri sendoa, edozein egoeratan egingo du irakurketa optimista. Haserretu ez da inoiz haserretzen, hori bai, pentsatzen duena esan egingo dizu. Han izango dira, era berean, Asier enpresaburua, Iñaki LAB-eko sindikalista ohia, eta Ramon aspaldian lanik gabe dagoen adin ezezaguneko gizona. Koro, Maite eta Natalia ere ez dira faltako. Eta, nola ez, gaiei ikuspuntu psikoanalitikoak emango die Vanessak.

Nor bere etxeko jendea elkartuko gara, geure gabezia, geure bertute. Hitz egiteaz gain, esan egingo da; baina, esan baino gehiago, entzun. Horregatik nago hain gogotsu eta hain lasai Gabonen aurrean. Errigorako otarrak, Txillarreko Pelloren barzki mundialak, eta hitz aspertu asegarriak dauzkadalako zain; baina, batez ere, altuan pentsatzeko lekua. Familia.

## Bigarren Eskuko Azokia oso arrakastatsua izan zan

Udalak antolatuta aurreko zapa-tuan Untzagan egin zan Bigarren Eskuko Azokiak jende mordua batu eban. Goiz osuan zabalik egon ziran postuetan era guztietako produktuak erosteko aukeria euki eban jendiak eta, azokiak euki daben harrera ona ikusitta, datorren urtian atzera be antolatzeko asmua dake-la azaldu dabe arduradunak.



## Algaraklown alkartekuak zapatu goiza alaittu eben

Algaraklown ospitaleko paillazuen alkartekuak kolore biziz eta umorez jantzi eben zapatu goiza, alkartiaren jardueretarako dirua lortzeko asmua-rekin Untzagan ipiñi eben puestuan. Izan be, alkartiaren kalendarixua, poltsak, sudurrak, giltzarriak, pultserak, katiluak... saltzeko ipiñi eben mahai-xaren aldamenian argazkixa egitteko "photocalla" be preparau eben eta jendiak ez eban aukerarik galdu, edade guztietako eibartarrak bata bestiaren atzetik han ibilli ziran eta.

## Liburuak eta kalendarixuak saltzen egon ziran Eibar Sahara Elkartekuak

Urteroko martxari jarraituta, Eibar-Sahara Elkartekuak liburu azokia ipiñi eben aurreko asteburuan Untzagan eta datorren urterako egin dittuen egutegixak be saltzen ibilli ziran, 5 eurotan. Horrelakueri esker biltzen daben dirua urtian zihar antolatzen dittuen jardueretan gastatzen dabe eta, horregaittik, zeozer erositta laguntzen detsen guztieri eskerrak emon nahi detsez.



## Truke eta Doako Azokia egingo da bixar goizian

Nalua Eibarko Feminista taldiak Truke eta Doako Azokia antolatu dau bixarko, 11:00etatik 15:00etara Eibarko Bizikleta Plazan (eguraldi txarra egin ezkeror Urkizun izango da, Azpirineko etxe azpitan). Azaldu dabenez, "erropak, jostailuak, liburuak eta beste hainbat kontu egongo dira azokan. Nahi dabenak bertan daguana hartzeko edo berak erabiltzen ez daben zeozergaittik kanbixatzeko aukeria izango dau". Ekimenarekin gaur egunian nagusi dan "konsumismo basatiaren zurrunbillotik" ihes egin nahi dabe, alternatibak badaguazela erakustiaz gain.

## Banatu dabe Txistorra Eguneko sari nagusiña

Eibarko Txirrindularien Elkarteak azaroan egin zuen Txistorra Eguneko zozketan, sari nagusiña Miren Aguirrezabaldegiri tokau jakon. Irabazliak Oberena harategixan gastatzeko 300 euroko erosketa-txartela jaso dau Jose Maria Jimenez Oberena harategiko jabiaren eta Angel Lopez Eibarko Txirrindularien Elkartearen presidentiaren eskutik. Zorionak!



## Pozik jaso eben sarixa Amañako jaixetako zozketako irabazliak

San Andres egunian Amañako Jaixetarako antolatu eben zozketako irabazliak Debako Itziar Urain eta Eibarko Izaskun Bustindui izan ziran eta, argazkixan ikusten dan moduan, pozarren hartu eben sari edarra. Zozketaren antolatzailliak rifak erosi zittueneri eskerrak emon nahi detsez, Amañako jaixeri laguntziagaittik.



*kontsulta jaso zittuen Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoan (KIUB) 2019ko lehen sei hillekuan, gehixenak (%19,58) telefoniari lotutakuak; atzetik doiaz energixa kontuekin lotutakuak (%14) eta auzokide-komunidadekin zerikusixa dakenak eta ibilgailuen konponketen ingurukuak. Bestalde, 154 erreklamaziñotan bitartekari-lana egin eben bulegotik.*

asteko  
1.201  
datua



## Arantzazu Etxanizek irabazi dau ...eta kitto! Euskara Elkartearen Gabonetako otarra

Eguazten eguardixan jaso eban Arantzazu Etxanizek ...eta kitto! Euskara Elkartearen Gabonetako otarra. 08.441 zenbaki saritua kalia erosi eban Arantzazuk, eta pozarren hartu eban 2.000 euro balixo dittuan otar edarra. Sarixa El Corte Inglesian bertan emon zetsen ..eta kitto! Euskara Elkarteko eta El Corte Ingleseko ordezkariak. Zorionak eta on egin!



## Gizaldek arreta emoteko bulegua daka Ardantzán

Gizalde Gipuzkoako Boluntariotza, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Hezkide Eskolak sustatutako zerbitzua da eta boluntariotza arluan lan egitten daben erakundieri ez eze, horrelako erakundietan boluntario modura parte hartzeko interesa daken pertsoneri arreta emoten detse. Iaz 20 urte bete zittuan agentziak eta, bere zerbitzuak Debabarrenera gerturatzeko asmuarekin, bulegua zabaldu eban gure herrixan, Ardantza kalia (5. zenbakiko beheko pisan).

Informaziño gehixago nahi dabenak bulegora jua leike, arratsaldeko 16:30xetatik 18:30xetara edo, bestela, [www.gizalde.eus](http://www.gizalde.eus) helbidian begiratu, 943428013 telefono zenbakira deittu edo [gizalde.eibar@gmail.com](mailto:gizalde.eibar@gmail.com) helbidera mezua idatzi.

  
**GIZALDE**  
GIPUZKOAKO BOLUNTARIOTZA



**JOSU MARTINEZ** (Juan San Martin bekaren irabazlea):

## “Euskarazko zinemaren historiaren hasieran gaude”

Josu Martinez Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatuak eta EHUko doktoreak eskuratu du aurtengo Juan San Martin beka. Historia zen edizio honetako ardatza eta Martinezek ‘Irudiz eta euskaraz, gure hizkuntzaren zinema, gure zinemaren hizkuntza’ izeneko ikerketa egitea proposatu zuen, euskarazko zinemaren historia ikertuko duen lana.

### - Zeintzuk dira euskarazko zinemaren hastapenak?

Hori ikertu nahi dut (barreak). Zinema Euskal Herrian bi aurpegiko fenomeno da. Euskal Herria askotan filmatu dute, zinemaren hastapenetik. Adibidez, zinearen historiako lehen filmetako bat, Lumiere anaiena, Biarritzen grabatu zuten. Orduetik, zinegile atzerritar askok Euskal Herria plato bezala hartu du. Baina aldi berean, bertako zinerik apenas dago XX. mende osoan, batez ere zinema arte garestia delako, arte industrial bat, eta gurea egituratu gabeko herria izanik, instituziorik gabeko herria izanik, ez du zinema-indus-

triarik eduki. Ia XX. mende osoan gure zinema gure herriaren antzekoa izan da. Azpigaratua, idealismotik eta altruismotik sortua, eta ezezaguna. Ezagutzen dugun euskarazko lehen pelikula ‘Gure Sor Lekua’ da, 1956an Hazparnen estreinatua, eta ez dakit lehenago besterik egin zen, baina egitekotan horren antzekoak izango dira. Hau da, film amateurak eta txikiak.

“Euskal zinema azpigaratua, idealismotik eta altruismotik sortua, eta ezezaguna izan da”

Euskarazko zinemaren hastapenak herri-gintzan aurkitzen dira, ez industrian.

### - Ikerketan hamarkadaz hamarkadako ibilbidea marraztuko duzu. Nolako gorabeherak izan ditu euskarazko zinematik?

Zinemak herri baten historia azaltzeko hainbat gako ematen ditu. Eta alderantziz ere, herri bateko zinema herri horretako historiari begira ulertzen da. Euskarazko zinemaren garapena gizartearen ispilu izan da. 30eko hamarkadan, Errepublikaren saioan, abertzaletasunaren eta euskal mugimendu kultural baten (Lizardi, Lauaxeta...) gorakadari loturiko euskal zinema egiteko teorizazio eta saiakera batzuk egon ziren. Gero, 50eko hamarkadatik aurrera, euskal kultura modernizazio fase batean sartzen denean, besteak beste euskara batuaren inguruko debata sortzen hastean eta euskara euskal nortasunaren ardatz bezala abertzaletasunaren barnean jartzean, ziklo aldaketa bat dago. Jakin al-



dizkaria sortzen da, mundu berri bat (Gabriel Aresti, Txilardegi...), eta horri lotuta filma txiki batzuk egiten hasten dira. Adibidez, Andre Madreren 'Gure Sor Lekua' eta Gotzon Elortzaren lanak. 60ko eta 70eko hamarkadetan, Ez Dok Hamairu, Oteiza eta beste batzuen mugimenduari lotuta, zinema-mota bat sortuko da (Ama-lur eta abar), politikoagoa. Hori dena azpi-garapen baten barnean ematen da. Orain dela 15 urtera arte ez da sortuko euskal zinema estandar bat, 'Aupa Etxebeste' filmak inauguratzen duen fase berri horretan, baldintza sozial eta ekonomiko batzuk ematen direlako.

**- Azken aldian 'Handia' eta 'Loreak' bezalako filmek sariak eta ospea jaso dute. Zein momentutan aurkitzen da euskarazko zinemagintza gaur egun?**

18 hilabete ditut gaia ikertzeko eta hasi aurretik hipotesiak baino ez ditut, baina esango nuke orain gaudela euskarazko zinemaren historiaren hasieran. Orain artekoa historiaurrea eta Erdi Aroa izan da. Orain hasi ahal da berba egiten euskal zinematografia bati buruz. Haur bat dugu esku artean eta etorkizuneko emakumea edo gizona bilakatuko dela dirudi, baina oraindik haur hauskor bat da.

**- Euskarazko literatura edo musikarekin alderatuz, zinemak pisu txikiago izan du euskal kulturean. Zergatik?**

Zinema arte berri bat da. Literaturak Euskal Herrian 500 urte ditu eta musika popularra oso errotuta dagoen adierazpidea da Euskal Herrian. Orduan, zinemaren kultura sortu egin behar da. Baina bueno, hori herri guztiek egin dute. Bestetik, musika sortzeko nahikoa da akordeoi edo gitarra bat, eta idazteko boligrafo bat. Zinema beste gauza bat da. Zinema egitea beste zerbait zen lehen, jende pribilegiatuaren eskuetan zegoen gauza bat (abangoardiako jendea, aberatsak...). Gainera, zinema egiteko instrumenturik ez dugu izan, hau da, ez dugu geure instituziorik eduki. Euskarazko zinema egitea posible



UEUko Mari Karmen Menika eta Bakarne Altonaga, Josu Martinez eta Patxi Lejardi.

**"Euskal Herria egituratu gabeko herria izan denez, ez du zinema-industriarik eduki"**



dela marrazten hasi diren momentuak, herriaren instituzionalizazio saiakerak egon direnean edo herriaren suspertze momentuetan gertatu dira.

**- Ikerketa honek izan dezakeen interes akademikoa eta soziala aipatu zen bekaren aurkezpenean. Zergatik?**

Interes akademikoa eta gizarte mailakoa lotuta doaz. Ni akademiako kidea naiz, unibertsitateko irakaslea, eta EHU ez dago irakasgairik euskarazko zinemaren inguruan. Gainera, ikusten dut komunikazio ka-

rretako ikasleek euskal zinemaz duten ezagutza supinoa dela. Ez bakarrik zinema historikoari buruz, baizik eta gaur egungo zinemari buruz. Baina hori horrela bada unibertsitate mailan, gizarte mailan are zabalduagoa da eta zentzu horretan ikerketak ekarpena egin dezake. Unibertsitateko testuak lehorrak eta ulertezinak izan behar direla pentsatzeko joera dago, baina ni mundu guztiak ulertuko duen modu batean idazten saiatzen naiz, erakargarria izan daitekeen modu batean. Historia erakargarria dela uste dut. Zinema unibertsitari buruzko historia batzuk nobela bat bezala irakurri daitezke eta horretara egin behar dugula uste dut.

**- Nolako ikerketa-prozesua jarraituko duzu?**

Zehaztu dudana egutegia jarraituz espero dut lan egitea. Dokumentazio lana egingo dut poliki-poliki, eta dokumentazio idatzian iturri dokumentalak jasoko ditut. Gainera, lehenagotik badituzte elkarrizketa batzuk eginda, zinegile historiko batzuekin, eta beste elkarrizketa-sorta bat egin nahiko nuke gaur egungo zinegileekin lehen mailako iturriak jasotzeko. Atalez atal joaten saiatuko naiz eta denari zentzu oso bat ematen.



## MARITXU ARRUABARRENA LARRAÑAGA

(I. URTEURRENA: 2018-XII-25)

**"Beti gure bihotzean"**

**ETXEKOAK**



# + osasun gida

## Dentistak



**arat**  
Hertz Klinika

"Hertz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51  
info@clinicadentalarat.com  
www.clinicadentalarat.com  
Toribio Etxebarria 4-1, EIBAR

UniverSalud  
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa



bista eder  
clínica dental - hertz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19  
www.bistaeder.es

Esku onetan egotearen ziurtasuna.  
20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



**EIBAR** HORTZ KLINIKA  
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com  
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

**Pedro Etxebarria Gisasola DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17



**GASTESI**  
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



**hortz-klinika**

**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



**IRAZABAL**  
clínica dental

Iribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnoa. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

**Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896**

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

**VITALDENT**  
Konpromisoa

San Juan, 7  
943 821 885 - 690 628 731  
www.vitaldent.com

## Dietetika/Nutrizioa

**NATUR HOUSE**

Ainara Iriondo Ansola  
GIZA ELIKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22  
Mugikorra: 677 551 850

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**

**ERREHABILITAZIOA**

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitateak
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika



**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

**KIRURGIA ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

**Javier Martin doktorea**  
Aurpegi-masailetakoa  
Kirurgilaria

**AURPEGIA GAZTETZEKO KIRURGIA**

**AURPEGIKO KIRURGIA ESTETIKOA**

679 334 371  
943 120 200

KONTSULTAK: Centro Médico Eibar  
KIRURGIAK: Policlínica Gipuzkoa

## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zkia.

- INDIATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOAK
- POSTURA ZUZENKETEN TRATAMENDUAK

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**

ARRAQUETA, 20  
T.F: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

## Ginekologia

Dra. Laura Martínez  Dr. Alejandro Recas

**GINECOLOGÍA EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D  
dr.recas@gmail.com  
dra.martinezgallardo@gmail.com  
www.ginecologiaeibar.com

## Logopedak

**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.  
943 202691  
ahotslan@gmail.com

**Diagnostikoa eta tratamendua**

Degluzio atipikoa	TDAH
Disfonia	Berbera arazoak
Ikaste-arazoak	TEA
	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ez. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

## Okulistak

**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea  
943 20 19 82

**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

• Presbiziaren kirurgia.

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

**ELENA AIZPUN**  
PODOLOGOA



838200124  
kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria, 5 - 1. A  
943 12 14 93 / 696 555 208

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika




BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943 799746

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

**PODOLOGOA**



Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO



Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA



BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa  
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina - Master Praktika Klinikoa  
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.  
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**



HAUR, NERABE ETA  
HELDUENTZAKO  
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
www.arratepsicoterapia.com

**Lorena Izaguirre Garcia**  
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA



Errebal, 15 - 1. ez. ....EIBAR  
Zuberoa, 4 .....ZARAUTZ  
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ  
Urkizu, 13 - behea  
Tel. 943206823 eta 686859023

## Psikoterapia

RPS: 32/17

**FUB**  
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR



FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

**Medikuntza Psikiatrikoa**

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)  
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ez. (Bilbo)  
94 416 49 06

furizar1@yahoo.com

Estaziño-Azitain bitartean trenbidea estali eta pasealekua egiteko proiektuak zeresan ugari ematen dihardu azken asteotan. Ardantzatik Amañara bitartean egindakoaren bidetik, trenbidea estali eta gainetik pasealekua sortzea da asmoa eta, horretarako proiektua, Eibarko Udalak eta Euskal Trenbide Sareak 2012an sinatu zuten hitzarmenaren eskutik dator. Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen Euskal Trenbide Sarea (ETS) ari da trenbidea estaltzeko proiektua idazten eta, aurreikusitako epeak betez gero, lanak datorren urtean hasiko lirateke. Hala ere, trenbide parean, Barakaldo kalean eta Electrociclos-eko etxeetan bizi direnetako asko kezkatuta daude, ETS-ren proiektuari jarraituz gero, pasealeku berria *"ia etxe barruan"* sartuko litzatekeelako, batez ere beheko pisuetan dauden etxeetan.



*Electrociclos-eko etxeak dira lanekin kaltetuko liratekeenetako batzuk.*

## Estaziño-Azitain trenbide gaineko pasealekuarentzat alternatiba bila

Trenbide zati hori estaltzeak euren etxeak kaltetuko dituela-eta, Barakaldo eta Electrociclos inguruko bizilagunek bilera egin zuten Beheko Tokia jubilatutako etxean, azaroaren 26an. Bizilagunek deitutako bilera horretan alderdi politiko guztiek hartu zuten parte eta, bizilagunek azaldu zituzten keja eta ardurak entzun eta gero, bilera amaitu eta jarraian, EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin-Podemosen alderdietako ordezkariak proiektu hori ez zutela babestuko argi laga zuten. Gauzak horrela, PSE-EE bakarrik geratu zen, proiektuaren alde egiteko prest. Hala ere, sozialistek ez dutela *"ezer inposatu nahi"* adierazi dute, are gutxiago oposizio alderdi guztiak ez ezik, trenbidearen inguruan bizi direnak ere proiektu horren kontra daudela jakinda. Hori dela eta, proiektua idazten diharduen Euskal Trenbide Sareari inguruan bizi direnen kezkek kontuan har ditzala eskatu dio Eibarko PSE-EEK, *"proiektuak eragin ditzazkeen kalteak ahalik eta txikiak izateko ahalegindu daitezten"*. Horrekin batera, proiektu

alternatibo baten alde eginez gero, Eusko Jaurlaritza aurretik sinatuta duten hitzarmenaren jasota dagoen finantza-konpromisoari eusteko prest legokeen konfirmatzeko eskatu dio PSE-EEK EAJri.

Eibarko Udalak eta Euskal Trenbide Sareak 2012an sinatu zuten hitzarmenaren arabera, trenbidea estali eta pasealekua egiteko lanen aurrekontua 18.000.000 euro ingurukoa da: %50 Eusko Jaurlaritzak ordainduko luke eta beste %50 Eibarko Udalak. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak 9 milioi euroko inbertsioa Eibarren egiteak duen garrantzia azpimarratu dute sozialistek behin baino gehiagotan eta proiektua modu positiboan baloratzeke arrazoiak egon badaudela uste dute: *"Herri-barruan aisialdirako 15.000 metro karratuko azalera sortzea, Azitain-Maltzagako bidegorriarekin lotzea eta Eguzki-Begin irisgarritasunari lotutako arazoekin amaitzea, besteak beste"*.

Kalte gutxiago eragingo litzazketen ordeko proiektuak aipatuta, Beheko Tokian azaroan egindako solasaldian, EH Bilduk beste proposamen bat aurkeztu zuen, Es-

taziño-Azitain tren zatiaren estaltzeko asmoari alternatiba gisa eta, orain dela egun batzuk esandakoaren arabera, *"PSO Eren B plana EH Bilduren proposamenaren il-dotik doala irakurri dugu komunikabideetan. Hori dela eta, bide hori jorratzera dei egiten diegu"*.

EH Bilduko ordezkariak berbetan, *"behe aldeko bizilagunei kalte handiak sortuko litzkie tren estaltzeak eta, hori dela eta, bizilagunek antolatutako solasaldi publikoan, proposamen alternatiboa aurkeztu genuen"*. Proposamen horren arabera, hiri barruko bidegorri-pasealekua egitearen alde azaldu dira: *"Estaziño-Azitain bidegorri zatiaren proiektua egin eta bidegorri-pasealekua Barrena kaletik bertatik igarotzeko dauden aukerak aztertzea proposatzen dugu"*. Horretarako eman beharreko pausoak, besteak beste, *"Gabilondo eraikina erosketarekin hasi eta eraikina botatzea, Barrena kaleko alde hori ibilgailuz libratzea eta auzoko tokiko komertzio txikia biziberritzeko premia planarekin hastea"* lirateke.

# LARRIaldiekin LARRItuta



Aurreko astean udaletxean egindako prentsaurrekoan PSE-EEko ordezkariak aditzera eman zutenez, urriaz geroztik Eibarko anbulatorioko larrialdi-zerbitzuaren ordutegia aldatu eta murriztu dutela jakin zuten, besteak beste herritar asko horren inguruko kexekin bertara joan direlako azalpen eske. Horren berri izan eta, jarraian, alkateak horren inguruko kezka azaldu zion Nekane Murga Osasun sailburuari eta, aldaketa herritarren kalterako dela-eta, zerbitzua lehenbailehen lehengora bueltatzea ere eskatu zion gutun batean.

Udaletik adierazi dutenez, Toribio Etxebarria kaleko anbulatorioan ematen duten larrialdietarako zerbitzuaren ordutegi-murrizketa aurtengo Gripearen Kontrako Kanpaina hastearekin batera sartu zen indarrean: *“Zerbitzuak aste batzuk daramatza bakarrik asteburuetan zabaltzen, 09:00etatik 21:00etara, eta astelehenetik barixakura ez dago EAG (Eten-gabeko Arreta Gunea) zerbitzurik. Lehen mailako arretarako medikuak arduratzen dira larrialdiekin, 08:00etatik 17:00etara”*.

Alkateak sailburuari idatzi dion gutunean dioenez, *“Toribio Etxebarriako anbulatorioan eskainitako larrialdi-zerbitzua, langile-faltaren eraginez, ordutegia murrizten joan da azken hilabeteetan”*. Gainera, Eibar Ospitalea inauguratu aurretik eta baita

Ospitala zabaldu ondoren ere, Debabarrena ESko zuzendariari eta Darpon orduko sailburuari anbulatorioan larrialdi-zerbitzua emateak duen garrantzia behin baino gehiagotan azpimarratu ziela, ahoz zein idatziz, gogorarazi dio Murgari.



**Urriaz geroztik anbulategiko larrialdi-zerbitzuaren ordutegia aldatu eta murriztu dute**

Orain dela gutxira arte, anbulatorioko larrialdi-zerbitzua 08:00etatik 17:00etara eskaintzen zen, eta 17:00etatik 24:00etara, berriz, EAGk funtzionatzen zuen. Baina une honetan, eta murrizketak tartean, astelehenetik barixakura bitartean, 17:00etatik aurrera, eta asteburuetan 21:00etatik aurrera, eibartarrek ezin dute zerbitzu hori anbulatorioan erabili. Gauzak horrela, egoera berriak zerbitzu barik lagatzen ditu herriaren erdialdeko eta ekialdeko eremuak, hain zuzen ere Eibarren biztanle-dentsitate handiena duten gunek. Gainera, Eibar Ospitaleko larrialdi-zerbitzurako mediku bakarra dagoela diote Udalean: *“Guregana keajtzera jo dutenek esandakoaren arabera, askori luzaroan zain egotea tokatu zaie, mediku bakarrik ezin zuelako horrenbeste jende aldi berean atenditu”*. Udalaren iritziz, Toribio Etxebarrian larrialdietarako zerbitzua murriztearen ondorioak igartzten hasi dira eta, eurek dituzten datuen arabera, *“egun batzuetan Eibar Ospitaleko larrialdi-zerbitzuak paziente asko artatu behar izan ditu eta horrek atzerapenak eragin ditu arretan”*.



Astelehenetik barixakura 08:00etatik 17:00etara larrialdiak familia medikuak artatzen ditu.

## ETENGABEKO ARRETAKO GUNEA (EAG)

### - Zer dira?

Premiazko arreta behar baduzu osasun-zentroaren ordutegitik kanpo edo jaiegun batean, Osakidetzak eskura jartzen dizkizun Ospitalez kanpoko Premiazko Arretako Gune hauetara joan zaitezke. Bizitza arriskuan jartzen ez duten premiazko kasuak artatzen dituzten zentroak dira, osasun-zentroen laneko ordutegitik kanpo. Profesional taldea familiako medikuek, erizaintzako langileek eta administrariak osatzen dute, eta gaixo akutu eta kronikoei ematen diete arreta, osasun-beharren arabera, osasun-zentroaren ordutegitik kanpo.

### - Nor joan daiteke zentro horietara?

Bizitza arriskuan jartzen ez duen baina premiazkoa den osasun-beharra duen edonor, bere osasun-zentroaren ohiko ordutegitik kanpo.

### - Hitzordua eskatu behar da?

Ez duzu aurretik hitzordua eskatu beharrik; izan ere, premiazko patologia bategatik joan zara. Han zaudela, zentroaren gune administratibora bertaratu baino ez duzu egin behar, eta eraman osasun-txartela (OTI) eta NANA. Sendaketa egin edo injektagarri bat eman behar badizute, derrigorrez eraman behar duzu erizaintzako tratamendu-aginduaren bolantea.

Gogoan izan beste inora baino lehen zerbitzu honetara joan behar zarela, bizitza arriskuan jartzen ez duen premiazko osasun-beharra baldin baduzu.

### LARRIALDIK EIBAR OSPITALEAN

Helbidea: Otaola Hiribidea, 6-8.

Telefonoa: 943449000

Astelehenetik barixakura: 17:00etatik 08:00etara

Asteburuak eta jaiegunak: 24 orduak



ezagutzen dituzu  
gure sare sozialak?



etakitto.eus

## Eibar Ospitaleak Diputazioak kudeatuko dituen bi egoitza-unitate soziosanitario izango ditu

**ABENDUKO LEHEN EGUNETAN EIBAR OSPITALERA BISITA EGIN ZUTEN** Nekane Murga Osasun sailburuak eta Markel Olano Gipuzkoako Diputatu Nagusiak, datorren urterako martxan ipiniko dituzten bi egoitza-unitate soziosanitarioak hartuko dituzten instalazioak bertatik bertara ikusten. Unitate berriak Osasun Sailaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko akordioari esker zabalduko dituzte eta Ospitaleko hirugarren solairuan egongo dira. 2.500 koadroko azalera izango dute eta, bien artean, 50 plaza inguru eskainiko dituzte eta, azaldukoaren arabera, unitate horiek aldi baterako laguntza-baliabideak izango dira: *“Horrek esan nahi du pertsona batzuen kasuan ezin dela ziurtatu beraien etxean eta adinekoentzako egoitza batean aplikazio eta ikuskaritza egokia egiten zaienik, daukaten gizarte eta familia egoeren ondorioz. Egoitza-unitate soziosanitario horietan, aldi baterako behar dituzten prestazioak emango zaizkie, harik eta beraien egoe-*



*ra hobetu arte”*. Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatuko ditu biak eta, Nekane Murga Osasun sailburuak nabarmendu zuenez, *“osasun eta gizarte arloko zaintzak, biak aldi berean behar dituzten pertsonen emango dizkiete arreta eta laguntza”*.

## 128.595 kontsulta urtebetean

**BADA URTEBETE EIBAR OSPITALEA MARTXAN JARRI ZUTELA** eta, honezgero, instalazioak martxa betean lanean daudela esan daiteke, bertan egindako kontsulta eta bestelakoen inguruko datuak ikusi besterik ez dago-eta: Ospitalea martxan jarri zenetik 128.595 kontsulta jaso dira guztira, gehienak Lehen Mailako Arretan (91.475, guztira). Bestalde, urtarrilean lehen ospitalizazio-solairua zabaldu zenetik, eta bigarrena martxan jarri eta gero, 253 ospitaleratze egin dira eta eguneko egonaldiak, berriz, 4.474 izan dira

guztira. Larrialdiak atenditzeko Etengabeko Arreta Gunean, bestalde, 9.522 pertsona ardatu dira urtebeteko tarte horretan. Bestalde, kanpo-kontsultetako espezialitate desberdinei lotutako 20.762 jarduera burutu dituzte. Errehabilitaziorako taldeak 6.836 kontsulta jaso ditu eta, horrez gain, egunean joan-etorria egiten duten pazienteek 93.168 errehabilitazio-saio egin dituzte horretarako dagoen gimnasioan. Eibar Ospitalearen Erradiagnostikoko Zerbitzuari dagokionez, urtebetean 19.020 proba egin dituzte guztira.





Funeraria-Ehortzetxe  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b> Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b> SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b>   <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

**JATORRIZKO KAFEETAN ESPEZIALIZATUA**

**AUKERAKO 40 TE BAINO GEHIAGO**

**MUNDUKO KAFE ONENAK IZENDATUTAKOAK**





**ASTELENA**  
GASTROTEKA

Urdaiazpiko Iberikoak  
**Labanez ebakita**

Ontze luzeko txuleta

Iberikoen taulak  
Gazta Beroak

**Estaziño, 7**  
**943-207032**

*arrate garitaonandia*

Gabonetan ugaritu egiten dira drogek eta alkoholak eragindako mendekotasunak eta berriz gaixotzeko arriskua; aldi kritikoa da gehiegikerietatik aldentzeko.

## Gabonetako beste aurpegia

**Gabonak hemen dira! Egun hauetan familiak mahai baten inguruan biltzen dira konpartitzeko eta ospatzeko.** Pertsona bakoitzak bere erara bizi ditu Gabonak, adinaren, egoeraren, bizi-historiaren, ohituren, bizi-unearen, familiarekiko hurbiltasun fisiko eta emozionalaren, harremanen kalitatearen eta abarren arabera. Zalantzarik gabe, egun hauek hunkigarriak izaten dira.

Familia-gatazkak, maite dugun pertsona baten galera, osasuna... denbora horretan zehar agerikoagoak diren errealitateak dira, eta harremanetan jar gaitezke ondoezarekin, tristurarekin eta gainbeheran dagoen animoarekin, iraganeko Gabonei lotuta oroitzapenak eta atzoko eta gaurko kontrasteak ahaztu gabe.

Familia-krisiak, osasun-krisiak, maite den pertsona baten galera... ansiolitikoaren, hau da, antsietatea murrizteko botiken kontsumo handiagoko eragin dezaketen egoerak dira eta baita hipnotikoena ere (loa eragiteko). Gehiegizko kontsumoak mendekotasun-prozesua eragin dezake. Adikzio isil eta ikusezina, tratatzeko zaila.

**Gabonetan ugaritu egiten dira drogek eta alkoholak eragindako mendekotasunak eta berriz gaixotzeko arriskua.** Aldi kritikoa da gehiegikeria eta "eragin txarretatik" aldendu beharra dutenentzat.

Gabonetan alkoholaren, drogen eta psikofarmakoen kontsumoa areagotzea, batzuetan, normalizazio batek kamuflatu du, minaren kamuflajearen kultura iragankor eta irreal on batek. Automedikazioa, edozein formatan, isolamendura eta gogo-aldarte depresiboetara daraman pasabidea da.

**Keinu txiki handiak**, hala nola alkoholik ez kontsumitzea psikofarmakoak hartzen badira, profesional bati deitzea, adibidez, orfidal-dosia handitzeko ahalegina egiten bada, edo kokaina kontsumitu ondorengo erreakzioetan eta harremanetako alterazio larrietan pentsatzea. Data horietan beharrezkoak diren osasun go-goetak dira. Honelako pentsamenduak: - Botika hau oso leuna da, - Jaietan bakarrik kontsumitzen da, - Ez da ezer gertatzen ... kostu handiko autoengainuak dira.

*izaro apraiz*

Hiltzen gaituzte, isilarazten, baztertzen eta, gainera, sufritzen ditugun errealitateak gutxiesten dituzte; imajinatu hori bizitzea nolakoa den

## Bortxatzailea nor da? Zu!

**Bai, nire egutegia ondo dago; eta bai, badakit ez dela martxoaren 8a, ezta azaroaren 25a ere.** Agian Gabonei buruz idatzi beharko nuke, kontsumismoari buruz edo... Baina zutabe honetako gai hau egunero jarri beharko genuke mahai gainean. Txileko Las Tesis kolektibo feministako kideek munduko emakumeak zutitu gaituzte agerikoak diren baina antza oraindik ulertzen ez ditugun egiak oihukatzeke. Hiltzen gaituzte, isilarazten, baztertzen eta, gainera, sufritzen ditugun errealitateak gutxiesten dituzte. Irakurtzeak molestatzen badizu, imajinatu egunero hori bizitzea nolakoa den.

Zergatik sentitu behar dugu emakumeok errudun bortxatuak izateagatik? Ikusten denez gure erantzukizuna da leku batzuek ekiditea, modu konkretu batzuetan ez jatzeta, ez dantzatzea, ez probokatzea, ez, ez eta ez... eta hau da, antza, askoren hiztegiaren sartzen ez den hitza. EZ. Horrelako esperientzia bat bizi ondoren, gainera, dena ezkutuan gorde behar... lotsa sentitzen dugulako, agian gure errua dela sinestarazten digutelako. Baina ez bakarrik bortxaketa kasuetan, gizartearen eragin patetikoa oraindik haratago doa.

Haurdun gelditzen gara, nahita edo nahi gabe, naturak dituen kapritxoak, aizu. Nahi gabe bada eta haurdunaldia etetea erabakitzen badugu (ze ojo, adimendun izakiak gara, erabaki gaitasunarekin) gaizki, baina nahita haurdun gelditu eta lehen hiru hilabetez "sekretua" gorde behar dugu, horrek dakarren presioarekin, haurdunaldia ezin lasaitasunez bizi haurra galduko ote dugunaren beldurrez... Ez al da nahikoa gure barrenean bizitza bat aurrera ateratzearekin? Ez al da nahikoa haur bat galtzeak eragiten duen sufrimenduari, gainera gizarte lotsa gehitu behar diogula? Denok zoratu al gara???

Behintzat mundu guztian zehar bada indarrez abesten den egia borobil bat, bortxatzaileek, emakumeak hiltzen dituzten gizonezkoek, gobernuek eta gizarteak orokorrean entzun behar duena, buklean, behin eta berriz eta ulertu arte: errua ez zen neria, ez non nengoen ez nola jantzia. Bortxatzailea nor da? Zu!





**gazteON**



**Bada dioenik ikasle garaia dela sasoirik gogoangarrietakoa: ikasi beste ardurarik ez, ostegunetako parrandak, askatasun handia, gaztetasuna... Gainera, kontuan izanda gaur egun ikasketak luzatu egin ohi direla (masterrak, graduondokoak...) ikasle sasoiak urte gehiago hartzen ditu, beraz, "pagotxa" are handiagoa da.**

Egia da, kanpotik begiratuta dena ikusten da erraza, baina gauza bera uste al dute ikasleek? Haien ikuspuntutik bidaiak, atzera-aurreak, azterketak, etxetik kanpo bizi behar izatea eta lagunengandik urruti egotea, besteak beste, ez dira beti erraz eramaten.

## **Ikasle bizimodua**

---

*Egilea:* Malen Illarramendi Beitia

# Zer diote mahai-inguruko kideek?



“Ez dago erabaki egokirik; bakoitzak bere egoera baloratu eta aztertu behar du zer komeni zaion jakiteko”

**Asier Barruetabeña**

*Ikus-entzunezko Komunikazioko 2.mailako ikaslea.  
20 urte.*



“Dena ez da nahi izate kontua, askotan gaitasunak baldintzatzen gaitu eta”

**Asier Martinez de Lagos**

*Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako 1.mailako ikaslea.  
18 urte.*



“Gaur egun erosotasuna bilatzen dugu; ikasle-pisuan bizitzean, edota autoan joan-etorriak egunero egitean”

**Maite Gonzalez**

*Lehen Hezkuntzako 3.mailako ikaslea.  
21 urte.*

**B**i edo hiru urterekin hasitako eskola-bidaia gero eta gehiago luzatzen da gaur egun. Hasieran, jolas antzera ikusten dira liburu arteko egunak. Denborarekin, ordea, kontua korapilatzen hasten da: ikasteari denbora gehiago eskaini beharra, gustukoak ez diren ikasgaiak, etorkizunari begira aukeraketak egin beharra... eta askotan etxea utzi eta bizimodu autonomoagoa hasi beharra, horrek dakartzan alde on eta txarrekin.

**Zer ikasi? Non bizi eta norekin?  
Nola antolatu bizimodu berria?  
Galdera ugari, askotan egun batetik besterako erantzuna behar dutenak.**

Esan gabe doa hartu beharreko lehen erabakia zer ikasi izaten dela. Ez da hautu erraza, izan ere, oso aukera zabala dago gaur egun eta hori alde batetik ona da, baina ideiak oso argi izan ezean, noraezean ibiltzea ekar dezake. Kasu gehienetan, gurea bezalako herri txikietatik irten beharra egoten da hiriburuetara jotzeko, eta zenbait kasutan are urutiago.

Unibertsitatea edo zentroa oso urrun egonez gero, ez dago zalan-tzaririk, bertan bizi beste aukerarik ez dago ikasketek iraun bitartean, alokatutako eta beste ikasle batzuekin partekatutako etxean edo ikasle-egoitzaren batean.


Etetik gertuago egonez gero, ordea, badago hirugarren aukera ere: egunero joan-etorria egitea garraio publikoan zein auto partikularretan, norbere kontura edo partekatuta.

Gazteon ahotik jakin nahi izan dugu zerk bultzatuta hartzen duten erabaki bat eta besteak baztertu, zein abantaila eta desabantaila ikusten dizkioten aukera bakoitzari eta zer gomendio emango lieketen euren egoera berean egongo diren ikasleei, nor bere eskarmentuan oinarrituta.

Honako datu hauek ondorioztatu dituzte mahainguruko kideen artean:

<b>ETXETIK KANPO BIZITZEA</b>	
<b>ERRESIDENTZIAN</b>	<b>IKASLE-PISUAN</b>
Intimitatea handiagoa da. Nork bere gela izateak bertan nahi beste denbora pasatzeko aukera ematen du, bai ikasten, bai gustuko gauzak egiten.	Konfidantzako pertsonekin bizitzeko aukera ezin hobe da.
Jendarteko giroa nahi baduzu ere, badaude leku komunak telebista ikusteko, jolasteko... eta jendearekin egoteko.	Askatasuna daukazu nahi duzuna, nahi duzunean eta nahi duzun moduan egiteko. Nork bere burua ezagutzeko aukera ona.
Kanpoko jende berria ezagutzeko aukera paregabea da.	Elkarbizitza nolako den ezagutzeko aukera paregabea, alde onak eta txarrak ezagutuz.

<b>EGUNERO JOAN-ETORRIAN IBILTZEA</b>	
<b>AUTOAN</b>	<b>GARRAIO PUBLIKOAN</b>
Oso denbora gutxi galtzen da bidean, autoan azkar mugitzen zarelako batetik bestera.	Oso merkea da, batez ere, autobuseko zein treneko txartelak izanda, ikasle-deskontuak ditu-eta.
Autonomia handia ematen du, ez da inongo ordutegiren menpe egon behar eta.	Bidaian zehar ikasteko, erreparatzeko, irakurtzeko... edo beste gauza batzuk egiteko denbora aprobetxatzeko aukera daukazu.
Beste ikasle batzuekin partekatuz gero, ekonomikoa izateaz gain, bidaia entretenigarria izan daiteke.	Maiztasun handiarekin daude garraio publikoak, eta zure ordutegiarekin bat egitea erraza da.



# Zein gomendio ematen dituzte gazteek?

## Hartutako erabakia aldatzeko beti dago denbora

Unibertsitateko graduak lau urtekoak dira gutxienez, eta denbora horretan zehar hartutako erabakiaz damutuz gero, aldatu egin daiteke. Pisu egonda, etxera buelta zaitezke, eta alderantziz. Hasierako erabakia ez da zertan definitiboa izan.

Asier Barruetaña

## Aukera ezberdinak aztertu behar dira erabakia hartzeko

Hasteko, zure herriaren eta unibertsitatearen arteko komunikazioa nolako den aztertu behar da, eta behin hori eginda, etxean geratzeko aukera baztertzan baduzu, orduan aukeratu beharko duzu ikasle-pisu batean edo erresidentzian geratu.

Asier Martinez de Lagos

## Ikasle-pisua aukera polita izan daiteke

Herriko zein inguruko herrietako jendea kontuan izan behar da beti garraioa merkeagoa atera dadin. Baina, egia da, aukera izanez gero, ikasle-pisu batean bizitzea ondo dagoela, asko ikasten delako; zure egunerokoa zure kabuz eraman behar duzu, eta ez gurasoen gain zama dena utzi.

Maite Gonzalez



Spotify



iVoox

## Podcast-a entzun nahi?

Mahai-inguru honen **podcast** edo audio-grabazioa **Spotify** eta **iVoox** entzun eta deskargatu daiteke. Plataforma horietan gazteON izenarekin aurkituko gaituzu. Oso modu errazean!

Podcast-a ingelesetik datorren hitza da (IPOD eta BROADCAST). Mugikor eta ordenagailuetatik entzun daitekeen multimedia fitxategi honek indar handia hartu du azken bolada honetan. Hori ikusita, gazteoneko atala ezin da atzean geratu, eta grabazio hauekin martxan jarri da.

Sartu zaitez **etakitto.eus** web orrian, eta bertan aurkituko duzu mahai-inguru honen grabazioa.



Ikasle bizimodua

## Gabon Traila egingo dute 24an

Kalamua Korrikalari Taldeak neguko traila egingo du egun horretan, Gabon Traila izeneko proba. Klub Deportibo aurretik irtengo dute goizeko 08:00etan eta toki berean amaituko dute, aurretik erraza egiteko moduko 15 kilometro eta erdiko distantzia osatu ondoren. Gutxi gorabehera "hiru ordutan egiteko moduko ibilbidea" osatuko dute, 757 metroko goranzko metatua gaindituta. Trail irteera doakoa da eta edozeinek hartu dezake parte, baina antolaketa lanak errazteko izena ematea beharrezkoa da (kalamuakorrikalaritaldea@gmail.com).



## Igeriketako Gabon Kopa jokatu da bihar Ipuruan

Herriko igerilarien egun handienetakoa jokatu da bihar arratsaldean Ipurua kiroldegian. 16:00etatik 20:00ak arte hainbat proba izango dira, Eibar Igerixan klubekoek antolatuta Gabon Koparen XXXI. edizioaren barruan. Bestalde, herriko igeriketa klubeko ordezkariak Neguko Ligako txanda jokatu zuten Oñatin, hainbat lehenengo postu eskuratuz: maila absolutoan, Roke Etxeberria, Maite Barruetaña eta Nekane Tejedor; juniorretan, Paula Gabilondo, Kai Zubiaurre eta Iraia Oruezabal; eta infantiletan, Mirren Galdos, Igor Ruiz, Malen Beobide eta Julen Bolunburu.

## Eibarko Kirol Sariak 25 urte

Mende laurdena beteko du oraingoan abenduaren 31n Coliseoak hartuko duen ekitaldiak. Ohiko orduan, eguerdiko 12:00etan, hasiko da Coliseoan ...eta kitto!-k antolatzen duen ekitaldia eta bertan herriko klub eta kirolariak urte osoan egindako lanaren errekonozimendua jasoko dute



*Martinez atzelariak bigarren denboraldia dihardu Granadan egiten, Eibarrek lagata.*

## Eibarrek Granada hartuko du gaur Ipuruan urtea agurtzeko

Martitzenean jokatuako Kopa torneoko lehen kanporaketan 3. mailako Logroñesi 0-5 irabazi eta gero, Mendilibarren mutilek urtea egokien amaitzen ahaleginduko dira gaur, 21:00etatik aurrera, Ipuruan jokatu den partiduan. Granada igo berria izango dute aurkari, denboraldia bikain hasi eta azken jardunaldietan pixka bat atzera egin duen taldea. Jokoa dauden puntuak oso ga-

rantzitsuak dira talde bientzat, beheko postuetatik ihes egiteko borrokan izango direla aurreikusten baita. Logroñon golea-tzaile izan ziren De Blasisek eta Charlesek bide horretatik jo nahiko dute, baina gol horietako asistentziak eman zizkien Orellana ez da partidakoa izango, zigortuta baitago. San Mamesen Eibarrekin debutatu zuen Esteban Burgos atzelaria ere baja izango da, min hartuta baitago.



*Miguel de los Toyos alkateak eman zion saria Jon Mikel Lejardiri.*

## Eibar Eskubaloia saritu zuten Gipuzkoako Kirol Galan

Herriko eskubaloi klubak izendapen berezia jaso zuen Gipuzkoako Kirol Galan, Bera Bera eta Rocasa Gran Canariaren arteko XX. Superkopako finala jasotzeagatik eta JD Arrate desager-tu zenetik eskubaloien alde egiten duen lan guztiarengatik. Bestalde, azken jardunaldian Eibar Eskubaloiko harrobiko talde guztiek euren partiduak irabazi zituzten, jubeniletan, kadetetan eta infantiletan, gehienetan gainera nagusitasun handia erakutsita. Somos talde nagusiak ez zuen bide bera jarraitu eta 28-18 galdu zuen Ereintzarekin, emakumezkoen Mecalbek 26-23 irabazi zuen eta Haritzak berdindu Ormaiztegiaren aurka jokatuako partidua.

## Ferreiro-Zeni bikoteak bereganatu zuten I. San Andres pala txapelketa

Becanak eta Soriak osatutako beste bikoteak gogor jardun zuten hasieran, 10-3 aurreratuta, baina irabazleek neurketa-



ren bigarren zatian ezarritako erritmoak partidua euren alde erortzea ekarri zuen. Azkenean, ikusgarria izan zen norgehiagokan, Ferreirok eta Zenik 30-21 irabazi zuten. Atzelari biek akats gutxi egin zituzten eta bildutako ikusleek ondo goza-

tu zuten, jokaldi itzelak tartean. Domekan goiz, 10:30ean, hasitako jaialdiari 3. eta 4. postuak zehazteko partidua jokatu zen aurretik eta hor Osa-Guinea bikotea Bengo-Larreategiri nagusitu zitzaion. Antolaztaileak pozik daude lehenengo edizioak eman duen emaitzarekin eta torneoarekin jarraitzea espero dute. Eibarko palistek, bestalde, eskerrak eman nahi dizkie torneo babestu duten erakunde eta bestelako guztiei.



## Gizonezkoen errugbiko taldea dinamika onean

Avia Eibar Rugby Taldeak azken aldiko dinamika onari jarraitzen dio eta aurreko zapatuan gauza izan zen Donostian Bera Berari 23-26 irabazteko. Gaston Ibarbururen mutilak ez ziren ondo sartu partiduan eta, euren hutsak aprobetxatuz eta entsegu kolpeak baliatuta, 12-0 aurreratu ziren donostiarrak. Baina, lehen zatia eibartarren entsegu barik amaitu bazen, bigarrenen beste nortasun bat erakutsi zuten Avia Eibar Rugbykoek eta markagailuari buelta eman zioten. 53. eta 56. minutuetako bi entseguk (Twiiieeti eta Martinen eskutik), eta 66. eta 76. minutuetan Franco Maggiolok lortutako beste bik, Gaizka Arrizabalagaren hiru transformazioekin batera azken emaitza ekarri zuten. Hurrengo aur-

karia Getxo liderra izango dute Unben: partidu zaila, benetan, "baina hori ez da aitzakia izango norgehiagoka lantzeko eta dinamika positiboarekin jarraitzeko".

### Emakumezkoak Ohorezko B mailan

Avia Eibarko emakumezkoen taldeari bi jardunaldi geratzen zaizkio Euskal Liga amaitzeko eta partidurik galdu gabe jarraitzen dute. Ohorezko B mailako ligari, bestalde, urtarrian ekingo diote: liga hori buelta bakarreko zazpi jardunaldi izango ditu eta eibartarrek 1. Liga Nazionalera igotzeko asmoarekin lehiatuko dute: urtarri-laren 19an, XV Murcia - Eibar; 26an, Eibar - Hortaleza; otsailaren 2an, Sant Cugat - Eibar; 16an, Eibar - Muralla; 22an, Industria-



les Madrid - Eibar; martxoaren 1ean, Eibar - BUC Barcelona; eta 8an, Les Abelles Valencia - Eibar. Beraz, Unben bakarrik hiru partidu izango dituzte eibartarrek.

## Deporreko mendizaleek denboraldia agurtu zuten Nuarbeko bentan

Aurreko zapatuan Klub Deportiboko mendi taldekoek urteko egutegiko azken zeharkaldia burutu zuten, Nuarbeko urtegitik Izazpi gainera igo (971 metro) eta goitik behera Mandubiako bentara

iristeko, bertan ohiko bazkaria egiteko. 12 kilometroko ibilaldi eroso egin zuten txangoan parte hartu zuten 60 lagunek, "eguraldi goxoaz gozatuz" haizeak gailurretan baino ez zuela astintzen aprobe-

txatuta: "Hori bai, gure ibilbidean zehar haizeak eginiko triskantzak egiazatu ahal izan genituen". Bazkaldu eta gero, kantuan jardun zuten bueltako autobusa hartu baino lehen.



### Federatu txartelak

Bestalde, aurreko astean hasi ziren Deporreko 2020rako mendiko federatu txartelak tramitatzen: "Oso garrantzizua da federatuta egotea mendian ibiltzeko ohitura dutenentzat. Gure bitartez federatu ahal izateko, dena dela, Klub Deportiboko bazkidea izan behar da". Bulegoko ordutegia 19:30etik 20:30era da, martitzen eta eguernetan. Ordu berean 943-201904 telefono zenbakira ere deitu daiteke.

## Sergio Rodriguez nagusitu zen Gipuzkoako txapelketarekin lotutako tiraldi berezietan

Asola Berriko Sergio Rodriguezek, lau jardunaldietan 22 txirlo botata, 500 euroko saria bereganatu zuen. Gipuzkoako 50. Hiru-Txirlo txapelketarekin batera lau botaldi hartu dituen torneo horretan eibartarrak lau txirloko alde aterazion Markina-Xemeingo Mateo Guenagari eta seikoa Garikoitz Rodriguez eibartarrari. Leintz-Gatzagan jokaturako azken tiraldian



Sebastian Aranzabal elgetarra izan zen onena, berarekin berdindu zuten Imanol Osoro elgoibartarrari eta Sergio Rodriguezzi parrekoak irabazita: hirurek sei txirlo bota zituzten.



## Eneko Korta judokak etorkizun oparoa du

Promesa izatetik errealitate izatera urrats sendoak dihardu egiten Kalamuako Eneko Kortak, aurreko zapa-tuan Hernaniko kiroldegian kirol-eskola finalerako baliagarria izan zen torneoan erakutsi zuen moduan. Lehen eta bigarren urteko 200dik gora alebin izan ziren lehian eta eibartarrak jokaturako bost borrokak irabazi zituen, "guztiak, gainera, di-da batean". Lehen urteko alebinen mailan Gizpuzkoako txapela jantzi bazuen, aurrean bide berbera dararama Kortak.

## Katedralak ateak zabaltzen jarraitzen du

Palako San Andres torneoa amaituta ere, gaur eta 25ean pilota jaialdiak hartuko ditu As-telena frontoiak. Gaurkoak pilota afizionatu mailako hiru partidu izango ditu: lehenengo biek Klub Deportiboko Pilota Eskolako bikoteen artekoak hartuko dituzte eta azkenak, federatuen mailakoak, eskuz banakako Gipuzkoako txapelketako neurketa izango du. 19:30ean hasiko den 2. urteko infantil mailako final-haurdenetako partiduan, Ibon Ibarra eibartarrak Oñatiko Aloña Mendiko Aldea izango du aurkari. 18:00etan hasiko den jaialdian, aurretik, Amillategi/Uria eta Olætxea/Meabebasterretxeak jokatu dute hasieran eta Jauregi/Gil eta Del Rey/Varonak jarraian.

Hilaren 25eko jaialdian, Altuna/Galartza eta Laso/Albisu bikoteen artekoa izango da partidu nagusia, binakako txapelketaren barrua. Txapelketakoa ere, baina promozio mailakoa izango da jaialdia itxiko duena, Agirre/Eskiroz eta Egiguren/Eros-tarke bikoteen artekoarekin. Jaialdia hasteko, bestalde, Elezkano eta Oier Etxebarriak Pello Etxeberria eta Bikuñarekin neurtuko dituzte indarrak.

## Aitor Hernandezek seigarren garaipena lortu zuen Oñatin

Specialized-Ermua Innpulsoko txirrindulariak X. Oñatiko ziklokros proba bereganatu zuen aurreko asteburuan, modu horretan denboraldiko seigarren garaipena eskuratuz. Aitor Hernandezek ihes egin zuen lehenengo itzuletatik eta probaren amaieran ia bi minutuko tartea atera zien atzetik helmugaratu ziren Miguel Sanchez eta Julen Zuberori. Lokatzak ibilbidea gogortu zuen, baina ondo etorri zitzaion Ermukoari, itzuli bakoitzean alde handitzen joan zelako: "Igo behar ziren 30 eskilarak ere ez ziren kalterako izan niretzat".



## ASTEBURUKO AGENDA

### FOBALLA

#### 1. Maila

EIBAR - Granada (gaur, 21:00)

#### Emakumezkoen 2. Maila

EIBAR (atsedena)

#### 3. Maila

VITORIA - Portugalete (etzi, 17:00)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

EIBAR B (atsedena)

#### Ohorezko Erregional Maila

Añorga - EIBAR URKO (bihar, 12:00)

#### 1. Erregionala

URKI (atsedena)

EIBARTARRAK (atsedena)

#### JUBENILAK

#### Ohorezko Maila Nazionala

EIBAR - Leioa (bihar, 15:30)

#### Euskal Liga

EIBAR B - S.A.N.S.E. (etzi, 12:30)

#### KADETEAK

#### Euskal Liga

EIBAR - Tolosa (bihar, 17:45)

### FOBALL-ZALETUA

Illunpe Areto - Slow XOK (bihar, 09:00)

Bar Txoko - La Jara (bihar, 09:00)

Los Paisanos - Ipur Sagar. (bihar, 10:30)

JMR Erreformak - Chic (bihar, 12:00)

Azkena Adahi - Garaj. Garcia (etzi, 09:00)

Feredu - Durango (etzi, 10:30)

### ESKUBALOIA

#### 1. Nazional Maila

SOMOS - Jacar San Antonio (bihar, 18:30)

#### Emakumezkoen Gipuzkoako 1. Maila

Zumaia Pulpo - MECALBE (bihar, 09:30)

#### Gipuzkoako 1. Maila

Salento Elgoibar - HARITZA (etzi, 12:00)

### ERRUGBIA

#### Ohorezko B Maila

AVIA - Getxo (bihar, 16:00)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

Getxo Artea - AVIA (bihar, 16:00)

### SASKIBALOIA

#### Gipuzkoako 3. Maila

AVIA (atsedena)

### WATERPOLOA

#### Euskal Herriko 1. Maila

URBAT - Portugalete (etzi, 15:30)

#### Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

URBAT - Getxo W (gaur, 21:45)

### AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN

Eibart Gabonetako 15. Artisau Azokak atzo ireki zituen ateak eta urtarilaren 5era arte egongo da zabalik 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30era (abenduaren 25ean eta urtarilaren 1ean ezik). Eibarko, inguruko herrietako eta estatuko hainbat tokitatik etorritako artisauek maitasun handiz eskuz egindako produktuak salgai egongo dira Untzagan jarri duten azokan. Olentzerorentzat aukera ona zakua opari original bezalako betetzeko.



## Eskuz eta bihotzez egindako lanak

Urteak joan urteak etorri Artisau Azoka pisu handiagoa hartzen joan da Gabonetako egitarauan eta bertan parte hartzen duten artisau kopuruan igaritzen da hori. Aurten 14 artisau egongo dira 13 postutan banatuta eta mota askotako produktuak jarriko dituzte salgai: poltsak, kamisetak, bitxiak, ilustrazioak, osagarriak... Kalitatezko produktuak dira, bakarrak, errepikaezinak, kutsu berezia dutenak eta bereziak.

Azken urteotan Untzagan jarri izan dute Artisau Azoka eta artisauak pozik daude gune horretan, erdialdean daudelako eta inguruan jende asko dabilelako. Izan ere, jendeak erosketaren esperientzia berezia bizi dezake azokan, merkataritza-gune handietan bizi ezin den esperientzia hurbila eta pertsonala. Hori gutxi ez balitz, Radio Eibarren (Cadena Ser) azokan erosteko 100 euroko opari-txartelak oparitu dituzte.

### 14 ARTISAU, 13 POSTU

**La Zaera eta LP Privado** artisauak postu berean egongo dira azokan. La Zaerak telazko produktuak egiten ditu (zintak, poltsak, gerriko poltsak, diru-zorroak...), kolorez beteriko ilustrazioekin. LP Privadok, bestetik, zeramika lantzen du batez ere, baina ilustrazioak ere jarriko ditu salgai.

**Kiliklimakek** zapiak, margotutako euritakoak eta telarekin egindako bitxiak ekarriko ditu.

**Leo&Lilo** Zarauzko familia baten proiektua da. Txikienei zuzenduta dago eta umeentzako "kalitatezko erropa etikoa eta kontzientea" egiten dute.

**Anitha Mol** Elorriko artisaua da eta papeperekin, hostoekin eta lore naturalekin egindako bitxigintzan dago espezializatua. "Artisautza artikuluetan erabiltzen diren tximeletak kontrolatutako haztegi batean hazitakoak dira, eta aske uzten dira behin heldutasunera iristen direnean. Ziklo hori betetzea lortzen ez duten tximeletak bildu egiten dira artisautzan erabiltzeko. Horrela, beste aukera bat ematen zaie betikotu daitezen", berak dioenez.

**SALTZAILEAK**  
 La Zaera  
 LP Privado  
 Kiliklima  
 Leo&Lilo  
 Anitha Mol  
 Nieves Maidagan  
 Marta Portela  
 Dir Dir  
 Ahiztak  
 Hartara  
 Calmada  
 AGTZ Prints  
 Eskulan  
 Darama

**AGTZ** ere Elorriotik dator eta etorri ezin izango den Gorakaten tokiak beteko du azokan. AGTZk serigrafia lantzen du eta kamisetak, zapiak eta bestelako produktuak sortzen ditu.

Zilarrak protagonismoa izango du **Dir Dir eta Darama** artisauekin. Ekoizle biek bitxiak egiten dituzte kalitate handiko zilarrak erabiliz.

**Nieves Maidaganek**, berritutako altxariak saltzeaz gain, bere maitagarri (birziklatutako oihalekin egindako gizaki itxurako panpinak) ospetsuak jarriko ditu salgai.

**Marta Portelak** panpinak ekarriko ditu baita ere, baina bere kasuan kakorraz-lanak izango dira.

**Ahiztak** artisauek telazko poltsak, diru-zorroak eta alpagatak sortzen dituzte.

**Jone Olabarri** eibartarraren **Hartara** markak margotutako poltsak, nezeserrak, egutegiak eta ilustrazioak eskainiko ditu azokan.

**Calmada** proiektuak emakumeentzako erropa egiten du. "Kalitatezkoa, erlaxatua, eroso eta kontzientea, eskuz egindakoa, Km0, tailu bakarrekoa eta jasagarria", euren berbetan.

**Eskulan** artisautza tailer eta dendak 15 urte daramatza erakuslehoak, lanparak, ispiluk eta bitxiak diseinatu eta fabrikatzen. Urtero bezala, herrikideei produktu originalak eskainiko dizkie Azokan.



# GABONETAKO EROSKETEKIN ZURE AUZOA BIZIBERRITU!!!

EIBARKO AUZOAK SUSPERTZEKO KANPAINA

## BEHE ALDEA

Barakaldo  
Barrena  
Karmen  
Asua Erreka  
Txonta

## JARDIÑETA ALDEA

Muzategi  
Pagaegi  
Mekola  
Ardantza  
Ibargain  
Matsaria

## LEGARRE ALDEA

Legarre Gain  
Abontza Bide  
Arrate Bide

## IPURUA ALDEA

San Kristobal  
Sostoa tarren  
Ubitxa  
Fray Martin Mallea  
J.A. Moguel  
Santaiñes  
Indalecio Ojanguren  
Romualdo galdos  
Egiguren tarren  
Jacinto Olabe  
Markezkoa

## URKI ALDEA

Errekatxu  
Miguel de Aguinaga  
Polonia Etxeberria  
Urki kurutzelekua  
Mutiloa  
Sansaburu  
Txaltxazelai  
Armagin  
J.A.Iturrioz

## AMAÑA

Amaña  
Wenzeslao Orbea  
Tiburzio Anitua  
Karlos Elgezua  
Artegieta  
Asola Igartza  
Bustinduitarren  
Ziriako Agirre



Eibarko kaleak  
eta iturriak

2020ko  
komertzio eta  
zerbitzuen gida

berria!!!

Laster buzoietan!

“Eibarko kaleak  
eta iturriak”

+

2020ko GIDA

Eibarko enpresa,  
zerbitzu, komertzio,  
tabernak...



**RAMON BEITIA:** Mahai guztiak libre, freskotasunean.



Soraluzen du jatorria A Tuti Plain taldeak, baina esentzia eibartarra du, Legarreko lokaletan entseiatzen dutelako. Legarreko jaietan jo ondoren, domekan berriz gurean egongo dira, 19:00etan, Portalean, Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak antolatzen dituen Domeka Kulturalak egitasmoaren barruan. Uztailean diskoa kaleratu zuten eta datorren urtean lan berria aurkezteko lanean dabiltza soraluzetarrak.

## A TUTI PLAIN:

# “Ez badugu ondo pasatzen, ez goaz inora”

### - Etzi kontzertua eskaintzeko gogoz?

Bai. Berezia izango da, aretoan joko dugulako. Normalean gaztetxeetan edo tabernetan jotzen dugu, eta domekakoa erronka izango da guretzat. Antirock samarra da aretoan jotzea, eserlekuak daudelako eta abar.

### - Gabonetako oparia da Portalean jotzea?

Guretzat kontzertu guztiak dira opariak, beti jo nahi dugu.

### - Nola sortu zenuten A Tuti Plain?


Kuadrilla musikala izan dugu beti eta musika jotzeko gelditzen ginen, inongo asmorik gabe, ondo pasatu eta gozatzeko bakarrik, eta parranda batean taldea sortzeko ideia irten zen.

### - Zenbat talde sortuko ziren parranda batean!

Taldeen %90 gutxi gorabehera. Baina gurea ez da parrandan sortutako ideia batean geratu. Aurrera jarraitu dugu, aurkezpen disko edo maketa grabatu dugu (A Tuti Plain izenekoa) eta kontzertuak eskaini ditugu.

### - Nola bizi izan duzue musika gozatzeko eta ondo pasatzeko egitetik zerbait serioagoa egitera pasatzeko prozesua?

Exigentzia eskatzen du diskoa grabatzeko, baina ez dugu galdu gozatzeko eta ondo pasatzeko espiritua. Bestela, ez goaz inora. Ez gara abestiak egiteko makinak. Taldean gure proposamenak aurkezten ditugu, jotzen hasten gara eta ideiak sortzen dira poliki-poliki.



### - Oraindik taldearen soinua definitu gabe dagoela aipatu izan duzue elkarrizketaren batean. Zergatik da horrela?

Arraro samarrak gara (*barreak*). Den-dena sortuta dago, bere generoa primeran lantzen duen talde asko dago eta ezin gara euren mailan jarri. Beraz, dakiguna jotzen hasi gara eta, guztioi estilo ezberdinak asko gustatzen zaizkigunez, denetarik jotzen dugu. Gure musikak rock oinarria du, baina hortik alde batera eta bestera jotzen dugu. Diskoan noraino heldu ahal garen zehaztu dugu, aldaketa askorekin. Orain sortzen dihardugun kantuetan, ordea, noraino joan nahi dugun zehazten dihardugu, baina hainbeste buelta eman barik.

### - Uztailean publikatu zenuten diskoa. Emaitzarekin pozik zaudete?


Gauzak hobeto egin ahal ditugula pentsatzen dugu beti. Entzuteko atsegina da eta gustora gaude, baina hurrengo lanetarako hobetu egin behar dugu. Gure lehen lana izan da eta grabatzerakoan nahiko berde geunden, estudioan grabatzeko ohitura barik. Oso esperientzia aberasgarria izan da, musikari bezala inoiz egin dugun gauzarik ederrena. Zure abesti bat grabatuta entzutea demasa da. Beteta sentitu gara. Gainera, jendeari diskoa gustatu zaio.

### - LegarRec estudioan grabatu zenuten Walter Tuzzeorekin. Zer moduz?

Hasieran Walter txokatu egiten zen gure abestiekin, baina gero berak tiratzen zuen abestiak aurrera ateratzeko. Xehetasun guztiak zaintzen zituen eta inork entzuten ez dituen soinuak entzuteko gai da. Asko lagundu digu Walter moduko profesional batekin lan egiteak.

### - Soraluzekoak izanda Legarreko lokaletan entseiatzen duzue. Zergatik?

Lehen Soraluzeko lokaletan entseiatzen genuen, baina hango egoera lotsagarria da eta Legarren hobeto babesten dugu gure materiala. Gainera, Legarreko lokala beste talde batzuekin partekatzen dugu eta hori oso aberasgarria da. Legarrek asko bete gaitu. Soraluzen entseiatzea gustatuko litzaziguke, baina ez dago laguntzarik eta baliabiderik.



**JULIO CASTEJON**  
(Asfalto)

## “Eremu ez aproposalen duintasun osoz aurrera egin du Asfaltok”

Asfalto taldeak kontzertua eskainiko du abenduaren 27an, 22:00etan, Coliseoan. 47 urteko ibilbidea egin ondoren errepidean jarraitzen du talde madrildarrak, “rock politinbrikoa” eskainiz. Lau hamarkadatan izandako gorabeheren ondorioz, Julio Castejon da taldearen lehen formakuntzatik gelditzen den kide bakarra eta kontzertu handia izango dela iragarri dugu.

**- 1972an sortu zenuten Asfalto. Zein da zuen sekretua hainbeste urtetan taldea bizirik mantentzeko?**

Ez dakit pertseberantzia edo burugogorkeria kontua den. Asfalto bezalako proiektu bat hainbeste urtetan bizirik mantentzea ez da erraza izan. Horregatik, taldea sortu genuen kideotatik ni izan naiz Asfalto gaur egun zutik mantentzeko gorabehera guztiei eutsi dien kide bakarra.

**- Nola kudeatu zenuten sasoi bateko arrakasta?**

Arrakasta kontzeptua definitu beharko genuke. Arrakasta ospea eta baliabide ekonomikoak sortzea bada, Asfaltok huts egin du. Baina esaten badidate bost hamarkada geroago jendea gure diskoekin emozionatzen dela, gure abestiekin bere bizitzako momenturik onenak gogoratzen dituela eta gaur egun gure disko berriak lehenengo lanak bezain interesgarriak iruditzen zaizkiela, Asfaltok arrakasta ukazina izan due-la esango nuke.

**- Nola egin duzue aurrera sasoi grisinetan?**

Grisa kolore ederra da, ñabardura asko ditu. Ezer ez da guztiz txuria edo guztiz beltza. Zailtasunak agertzen direnean alde txuriari begiratu behar diozu, etorkizuna arazoak saihestuz bideratzeko.

**- 50 urtetan gizartea, modak, gustuak... asko aldatu dira. Asfalto ere aldatu egin da?**

Ez, Asfalto funtsean oso gutxi aldatu da. Hori bai, teknologia berriak, eta baliabide eta musika-tresna gehiago ditugu, gure soinua gaur egun estilo honen barruan erreferentea den edozein talderen baliokidea izanik.

**- Belaunaldi berriek Asfaltorekin bat egin dute?**

Gazteek ez dakite nortzuk garen eta zer proposatzen dugun. Normala da, gizarte honetan mediatikoa zara edo ez zara existitzen. Komunikazio defizit hau arintzeko gure irratia propioa sortu dugu, Radio Asfalto (radio.grupoasfalto.com), eta taldearen musika jartzen dugu egun osoan.

**- Zuen ibilbidean, zer baloratzen duzue gehien?**

Eremu ez aproposalen duintasun osoz aurrera egin izana. Horregatik, milaka jarraitzaile izaten jarraitzen dugu eta esker ona zor diegu gure musika euren bizitzaren soinu-banda bihurtzeagatik.

**- Nolako kontzertua eskainiko duzue Eibarren?**

Eszenatoki gainean talde zoragarria gara eta primeran sinkronizatutako ikuskizun bisuala eskaintzen dugu. Gaztelerez abesten den rockean mundu mailako erreferente izaten lagundu diguten ñabardurak eskainiko ditugu kontzertuan.

## Gurasoak Berbetanekoek Gabonak prestatzen

Barixakuak Jolasian egitasmoko urteko azken saioa izan zuten aurreko astean Gurasoak Berbetan programako gurasoek. Seme-alabek lagunduta, Gabonetarako apaingarri politak egin zituzten: arbolan eskegitzeko bolatxoa, Olentzerori gutuna idazteko txartela... Giro euskaldun ezin hobean ederto pasa zuten ...eta kitto! Euskara Elkarteko egoitzara etorri ziren familiek. Hurrengo saioa urtarrilaren



13an izango da. Egitasmoan izena emanda dutenek izango dute parte hartzeko aukera eta, izenik eman ez dutenek, berriaz, aurretik deitu beharko dute, 943200918 telefonora.



## Larrua lantzen ikasteko tailerra

Larrua lantzen ikasteko 15 lagun elkartu ziren martitzenean ...eta kitto! Euskara Elkartean. Illunabarrian programaren barruan antolatutako saioak arrakasta handia izan zuen. Pare bat orduz jardun zuten Arima Coul Tour elkarteko Aitziber eta Urko irakasleek esandakoari jarraituz eta, hainbat teknika erabilita, bakoitzak bere gustora egindako diru-zorroa eraman zuen etxera.



## Su Ta Gar taldekoekin '564' kantatzeko deia hilaren 24rako

Euskal presoei elkartasuna helarazteko asmoz, Su Ta Gar taldeko Xabi Bastidak eta Aitor Gorosabelek eurekin batera Hertzainak taldearen '564' abestia kantatzeko gonbidapen zabala egin dute. Ekimena abenduaren 24an egingo da, 18:30ean, Depor taberna parean (Toribio Etxebarria kalean).



## Huntza taldekoak Udal Euskaltegiko ikasleekin

Herriko beste talde batzuk bezala, Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasleak ere EITBk antolatutako maratoirako "Lau teilatu" abestia grabatzera animatu ziren abenduaren 3an, Euskeraren Egunean. Bestalde, abenduaren 11n, Huntza taldeko Josune eta Uxue Portalean egon ziren, Euskaltegiaren 35. urteurreneko ekitaldien barruan. Taldearen ibilbidearen eta hainbat anekdotaren berri emateaz gain, abesti batzuk ere kantatu zituzten.

## Lorelei taldea bueltan da 20 urteren ondoren

Mikel Gorosabel musikariak eta Asier Serrano idazle eta kantariak Lorelei taldea berreskuratzeko dute 20 urteko isilunearen ondoren. Poesia eta pop musika uztartzen dituen talde eibartarrak lau kontzertu iragarri ditu 2020. urterako (urtarrilaren 17an Andoaingo Bastero Kultur-gunean, otsailaren 7an Eibarko Coliseoan, otsailaren 14an Zarauzko Modelo aretoan eta martxoaren 24an Lekeitioko Ikusgarriz zineman), baina kontzertu



gehiago eskaintzeko asmoa du. Gainera, Gorosabel eta Serranok Antxon Sarasua eta Loiola Madera musikariaren laguntza izango dute etapa berri honetan. Loreleik bi disko kaleratu zituen 90eko hamarkadan: "Bada hiri gorri bat" (1997) eta "Tatuatu zenidan zerua" (1999).

## Euskal operari eskainitako kontzertua

Andekazaleak musika elkartekoen euskal opera gustokoa dutenentzat "Alare!" izeneko kontzertu berezia prestatu dute abenduaren 30erako, 20:00etan Bilboko Euskalduna jauregian. Eibarren bizi den Jose Antonio Azurmendi elkarte horretako presidenteak esandakoaren arabera, "Euskal Operari eskeinitako kontzertu handia izango da, goi mailakoa". Elkarteari izena ematen dion Andeka Gorrotxategi tenoreak Ana Otxoa Pando sopranoaren lankidetzarekin berezia izango du eta, horrez gain, BOS Bilboko Orkestra Sinfonikoak eta Bilboko Elkarte Koralkak hartuko dute parte eta zuzendari musikala Oliver Diaz izango da. Sarrerak leihatilan, euskalduna.eus helbidean, Kutxabanken bitartez eta walkonproject.org gunean eros daitezke. Montecarlo, Hannover eta Sidney-rako bidea hartu aurretik, Bilbon kantatuko du Andeka Gorrotxategi eta luzaroan Sostoa abesbatza zuzendu zuen Jesus Mari Sagarnarekin ari da kontzerturako prestatzen. Hain zuzen ere, Sagarna dabil kontzertua pianorako moldatzen, ahal izanez gero aurrerago Eibarren, Coliseoan egiteko asmoz.



Andeka  
Gorrotxategi

## Olentzerorekin kantu-kalejira

Martitzen goizean, 11:30ean hasiko da "Zatoz Olentzerorekin abestera!" kalejira. Urkizutik abiatuta, Arragueta, Coliseo, Errebal, Anbulategia eta Toribio Etxebarria zeharkatuko dituzte, Untzagara ailegatu eta amaitzeko. Ibilbidean zehar hainbat geldialdi egingo dituzte Olentzerorekin batera kantatzeko eta, urtero bezala, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako eta Adolfo Jainagaren ikasleen eta Eibarko Kantuzaleak eta Kaleetan Kantuz taldeen laguntzarekin egingo da kalejira. Bestalde, 12:30etik aurrera Olentzerok umeei harrera egingo die udaletxean.

## Domekan emango dute Gabon kontzertua txistulariek

Usartza Txistulari Taldeak domekan emango du Gabonetako kontzertua, 12:30ean udaletxeko arkupeetan. Txistulariekin batera, beste hainbatek hartuko dute parte emanaldian: Sostoa abesbatza, Isabel Laspiur pianojolea, J.B. Gisasola Musika Eskolako txistu ikasleak, Unai Cabanzon (tronpeta), Danel Montero (tronpeta), Iñaki Orbegozo (tronpa), Xabier Martin (tronboia) eta Beñat Etxabe (tuba). Eskainiko duten egitaraua, berriz, honako hau da: "Martxa Heraldikoak" (Miguel Gonzalez Bastida), "Atzerriko Eguberria" (Jose Inaxio Ansorena), "Bi Bilantziko" (Mold. J.I. Ansorena), "Dizdizka zeruan" (Eva Ugalde, Mold. Gorka Zabaleta), "Natus est in Bethleem" (Xabier Sarasola, Mold. Gariquito Mendizabal), "Non degu, non?" (Junkal Guerrero, Mold.



Gorka Zabaleta), "Umetxoaren ametsak" (Sholom Secunda, Mold. Gorka Zabaleta), "Din, Dan, Don" (James Lord Pierpont, Mold. J.I. Ansorena), "American Christmas" (Amerikar bilduma) eta "Gabon gabean-Alaken" (Herrikoia, Mold. Txomin Agirregomezkorta).

## Mari Errauskinen antzerkirako moldaketa bihar Coliseoan



Umeendako (3-9 urte) "Mari Errauskin" antzezikizuna eskainiko du bihar 17:00etan Glu Glu antzerki konpainiak Coliseo antzokian. Klasikoetan klasikoa den Mari Errauskinen ipuinaren moldaketa honetan printzesen ipuinari buelta eman nahi izan diote: gelako liderra eta eskolako printzesa sentitzen den ume bat izango da protagonistetako bat eta, betiko martxan, kantuak eta dantzak tartean direla, familia osoarentzat aproposa den komeria aurkeztuko dute. Lanaren egilea Galder Perez da eta zuzendaria Maitane Zalduegi Viar. Antzezleak, berriz, Itxaso Quintana, Andrea Covadonga, Sara Barroeta, Jon Casamayor eta Ugaitz Alegria / Iñaki Maruri dira. Sarrerak 5 euro balio du.

## Sostoaen kontzertua gaur San Andres elizan

Gaur 20:30ean hasiko da Sostoa Abesbatzaren Gabonetako kontzertua, San Andres elizan. Emanaldi berezi honetan Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako haurren abesbatza eta Eibarko Koru Gaztea aldamenean izango dituzte Sostoaokok eta, horrekin batera, hainbat musikari-

ren kolaborazioa ere izango dute: Isabel Laspiur (pianoa), Ainara Uriquen (biolontxelo) eta JBG Musika Eskolako perkusio taldea. Aurreratu dutenez, "Gabon giroko kontzertu honetan estilo ezberdineko kantuekin osatutako erreperitorioa" eskainiko dute, "edozeinek gozatzeko modukoa".

## Gorka Aizpuruak beste sari bat irabazi du kartel batekin

Bartzelonan bizi den Gorka Aizpuruaren estudioak kartel onenaren saria jaso du Anuaría 2019 Espainiako Diseinu Grafikoko Sarietan, "Bikote" izeneko lanarekin. Anuaría Sariak diseinu arloan babesik handiena duten sariak dira eta epai-mahaia osatzen duten kide guztiak sektoreko profesionalak izaten dira.



## Foballean aritu diren andrei buruzko argazki erakusketa

Eibarko emakumezkoen foballaren historiari buruzko argazki erakusketa antolatu du SD Eibar Fundazioak. Eguaztenez abaldu zuten, Untzagako jubilatuetan, eta urtarrilaren 4ra arte egongo da martxan. Asteleheneetik barixakura bitartean, 19:15etik 21:30era joan daiteke ikustera eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara (baita abenduaren 24an eta 31n ere). Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da.





**“Romancero gitano”  
 Nuria Espertekin  
 ERMUAN**

Gaur 22:15ean “Romancero gitano” antzezlanaren taularatuko du Ermua Antzokian, Nuria Espertekin eskutik. Sarrerak 15 euro balio du eta Lluís Pasquak zuzentzen du Federico García Lorcaren lana, ordubate inguruko errepresentazioan. Romancero Gitano itxura errazeko poesia sakonez osaturiko poesia-liburua da eta emakumeen bitartez adierazi zituen sarri Federicok bere sentimendurik hondo-hondokoena, eta hainbat aktorasak, beraien gorputz eta ahotsekin, bizitza eman diete emakume horiei.



**Mursegoren kontzertu poetikoa SORALUZEN**

Errabal kultur elkarteak antolatuta Soraluzen egiten dituzten irakurketa feminista saioei lotuta, entzulego orokorrari zabalik izango diren kontzertuak antolatzen hasi dira. Lehen emanaldia Maite Arroita Jauregi “Mursego”ren eskutik etorriko da. Honek Gloria Fuertes testuekin egindako ikuskizuna eskainiko du gaur, iluntzeko 20:00etan, Soraluzeko Zentroan. Hurrengo Anari kantariaren eskutik izango da urtarriaren.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

**hildakoak**

- Ana Santos Santos. 95 urte. 2019-XII-11.
- Victor Manuel Aristondo Gorosabel. 52 urte. 2019-XII-11.
- Pedro M<sup>a</sup> Zorrozuola Olarra. 70 urte. 2019-XII-13.
- Javier Derteano Gerrikaetxebarria. 74 urte. 2019-XII-13.
- Patro Gonzalez Delgado. 91 urte. 2019-XII-13.
- Andres Pascual Mate. 70 urte. 2019-XII-13.
- Irene Benito Espilla. 95 urte. 2019-XII-15.
- M<sup>a</sup> Paz Blazquez Martin. 88 urte. 2019-XII-15.
- Aranzazu Aranzeta Aranzeta. 97 urte. 2019-XII-16.
- Brigida Olano Madariaga. 81 urte. 2019-XII-17.

**jaiotakoak**

- Mikel Aitor Olmedo Zeledon. 2019-XII-9.
- Ibai Ruiz Rodelgo. 2019-XII-10.

**farmaziak**

- Barixakua 20  
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 21  
 EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Domeka 22  
 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Astelehena 23  
 EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Martitzena 24  
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 25  
 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Eguena 26  
 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Barixakua 27  
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2019AN-  
 Zulueta (San Agustin, 5)

**SUDOKUA**

AURREKOAREN  
 EMAITZA

9	7	1	6	5	4	2	8	3
5	3	2	9	8	7	6	1	4
6	8	4	2	1	3	7	5	9
2	1	8	7	3	9	4	6	5
3	6	7	1	4	5	8	9	2
4	9	5	8	6	2	3	7	1
1	2	3	5	7	8	9	4	6
8	5	9	4	2	6	1	3	7
7	4	6	3	9	1	5	2	8

2			5		1			
	7	3	4			8		
				8		3		
	4	5			6			
8			9		7			2
			8			6	7	
		7		2				
	8				4	5	1	
		1		6				9

**telefono jakingarriak**

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Andretxea.....943 70 08 28
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

## Barixakua 20

### EIBART AZOKA

**11:00/14:00 eta 17:00/20:30.** Gabonetako 15. Artisau Azoka. Untzagan.

### KONTZERTUA

**20:30.** Sostoaren Gabonetako kontzertua, J.B. Gisasola Korua eta Eibarko Koro Gaztearen parte-hartzearekin. San Andres elizan.

## Zapatua 21

### SANTO TOMAS

**11:00.** Kaleetan Kantuz taldearen kalejira, Urkizutik hasita.

**18:00.** Txistorra-jana, bazkideentzat. Ipuruko jubilatuetxean.

### GABONETAKO HAUR PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** Astelenan, 2-12 urteko haurrentzat. 3 euro (doan EMGI-ko bonoarekin). Astelena frontoian.

### EIBART AZOKA

**11:00/14:00 eta 17:00/20:30.** Gabonetako 15. Artisau Azoka. Untzagan.

### AZOKA

**11:00/15:00.** Truke eta doako azoka, Nalua Eibarko Feminista taldeak antolatuta. Eibarko Bizikleta Plazan (eguraldi txarra egiten badu, Urkizun, Azpiri etxe azpian).

### ANTZERKIA

**17:00.** "Mari Errauskin" (Glu Glu). 5 euro. Coliseoan.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30.** Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia HH-ko umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegian.

### OLENTZERO

**18:00.** Olentzero eta Maridomingiren bisita. El Corte Inglesean (beheko solairuan).

## Domeka 22

### EIBART AZOKA

**11:00/14:00 eta 17:00/20:30.** Gabonetako 15. Artisau Azoka. Untzagan.

### KONTZERTUA

**12:00.** Usartza txistulari taldearen Gabonetako kontzertua, Sostoaren laguntzarekin. Untzagan.

### KONTZERTUA

**17:00.** Debarreneko Orfeoaren Gabonetako kontzertua. Ego Gain gerontologia zentroan.



### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30.** Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia HH-ko umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegian.

### PATINAK IPURUAN

**17:45/19:45.** Patinatzeko pista. Ipurua kiroldegian.

### KONTZERTUA

**19:00.** A Tuti Plain taldearen kontzertua, Domeka Kulturalak egitasmoaren baitan. Doan. Portalean.

## Astelehena 23

### EIBART AZOKA

**11:00/14:00 eta 17:00/20:30.** Gabonetako 15. Artisau Azoka. Untzagan.

### ELKARRETARATZEA

**12:00.** Jubilatuetan eta Pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

## Martitzena 24

### GABONTRAIL

**08:00.** Gabontrail 2019 (15,5 kilometro / 3 ordu). Klub Deportibo paretik abiatuta.



### EIBART AZOKA

**11:00/14:00 eta 17:00/20:30.** Gabonetako 15. Artisau Azoka. Untzagan.

### OLENTZERO

**11:30.** "Zatoz Olentzerorekin abestera!" kalejira, Urkizutik hasita (Arragueta - Coliseo - Errebal - Anbulategia - T. Etxebarria - Untzaga Plaza). J.B. Gisasola Musika Eskolako eta Adolfo Jainagaren ikasleen eskutik eta Eibarko Kantuzaleak eta Kaleetan Kantuz taldeen laguntzarekin. 12:30etatik aurrera Olentzerok umeei harrera egingo die udaletxean.



## Eguena 26

### EIBART AZOKA

**11:00/14:00 eta 17:00/20:30.** Gabonetako 15. Artisau Azoka. Untzagan.

### ODOL-EMATEA

**18:00.** Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

## Erakusketak

### Abenduaren 29ra arte:

– "NEURRI HANDIAK" JOSE LUIS IRIGOIENEN ARGAZKIAK (Topaleku)

### Abenduaren 31ra arte:

– "ARGAZKIGINTZA DIGITALA" IKASTAROKO ARGAZKIAK (Depor taberna)

– "PLASTIKORIK GABE AURRERA" EGOAIZIAREN LEHIAKETAKO ARGAZKIAK (Portalea taberna)

### Urtarrilaren 12ra arte:

– "UDAZKENA" KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAREN ARGAZKIAK (Portalea)

– "ESKEMA" ION FIZ-EN BOZETOAK (Armaztearen Museoa)

– "GURS EXPERIENCES. ARTEA ETA MEMORIA" (Portalea)



**Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, MAREN, hillairen 24an 6 urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez, ondo pasa!



Zorionak, MARKEL, hillairen 8xan 10 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.




Gaur hiru hillabete egitten diitu ANER-ek gurekin. Musu pillua etxekuen eta, batez be, zure lehengusiña Laiaren partez.



Zorionak, LAIA, bixar 7 urte beteko dozuz-eta. Ondo pasau! Musu bat famelixaren eta, batez be, Aner zure lehengusuaren partez.




Zorionak, HINAS, hillairen 18xan 7 urte bete zenduazelako. Musu asko etxeko guztien partez.



Zorionak, VICTORIA. Eskerrik asko 9 urte hauetan banatu dozuzen bizipoz eta maitasunarengaitik.



Zorionak, URKO, aurreko astian 4 urte bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Mikelen partez.



Zorionak, UNAI Medina: azkenian heldu da eguna! 24xan 9 urte, mutil haundi! Musu bat famelixaren eta, batez be, Julenen partez.




Zorionak, ANE!! 9 urte!! (abenduak 15). Ederto ospatu zenduan eguna, ezta? Lagunak, kuadrila, familia... Patxo asko etxeko guztien partez.



Zorionak, MADDI, atzo 5urte bete zenduaz-eta! Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Aiurren partez!



Zorionak, MAYA, atzo 3 urte bete zenduaz-eta. Illargira eta buelta maite zaittugu. Aitta, ama eta Izar zure ahiztiaren partez.



Zorionak, ASIER, eguaztenian 23 urte bete zenduaz-eta. Besarkada bat laguneren partez. Zapatuko potia zure kontu!



Zorionak, NORA (4 urte hillairen 19xan) eta ANDER (8 urte 21ian). Asko maitte zaittuzten etxeko guztien partez.



Zorionak, LUR, hillairen 24an 3 urte beteko dozuz-eta. Maite zaittugu pilla-pilla patata tortilla!



Zorionak, ANDER, hillairen 23an 9 urte beteko dozuz-eta. Etxeko guztien eta, batez be, zure arreba Amaiaeren partez.



Zorionak, LEA! Gure etxeko txikixak urtetxua bete dau-eta!

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**

**21ean: 19:45, 22:30**

**22an: 17:00, 20:00**

**23an: 20:30**

**"Dios mío, ¿pero que te..."**

Zuzendaria: Philippe Chauveron

**(2 ARETOAN)**

**21ean: 22:30**

**22an: 20:00**

**23an: 20:30**

**"Jumanji. Siguiete nivel"**

Zuzendaria: Jake Kasdan

**(ANTZOKIAN)**

**21ean: 16:30<sup>(1)</sup>, 19:30, 22:30**

**22an: 17:00, 20:00**

**23an: 20:30**

**"Star Wars. El ascenso..."**

Zuzendaria: J.J. Abrams


**(2 ARETOAN)**

**21ean: 17:00**

**22an: 17:00**

**"Frozen II"**

Zuzendaria: Chris Buck



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai R. Galdos kalean. 3 logela eta 2 komun. 90 m<sup>2</sup>. Terraza eta dena kanpora begira. Oso egoera onean. Sartzeko moduan. Tel. 671-258740.

### 1.2. Errentan

- Pisua alokagai Eibar erdialdean. 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Berehala sartzeko moduan. Tel. 688-667994.
- Hiru lagun alokairuan hartzeko etxe bila gabilta. Arduratsuak eta diru sarrera finkoekin. Tel. 656-741187.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 627-892991 eta 674-377765.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. 4 urteko esperientzia. Tel. 643-398596.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 5 urteko esperientzia. Tel. 643-929554.
- Emakumea da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 688-754873.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 631-502177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-874525.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Baita asteburuetan ere. Orduka. Erreferentziak. Tel. 600-073104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 632-415374.
- Emakumea eskaintzen da 11:00etatik 17:00etara lan egiteko (zaintza, garbiketara...). Tel. 603-874953.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 632-761979.
- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan, garbiketarako egiteko eta gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 629-889465.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere). Jaurilaritzako ziurtagirierekin. Tel. 631-067165.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-529252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gaez ere) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 641-426543.

- Mutila eskaintzen da eraikuntza eta margotze lanetarako. Tel. 642-505630.
- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 627-892991.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-422256.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-389567.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 612-221327.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 632-098382.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-642320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-434004.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 617-610706. Isabel.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 658-273486.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Ziurtagiriarekin. Tel. 667-060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanetarako eta sukalde moduan. Tel. 641-693067.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 603-651876.
- Mutil arduratsua eskaintzen da pintore edo iturgin moduan eta eraikuntzan edo nekazaritzan jarduteko. Esperientzia. Tel. 667-204456 eta vallecillo12@gmail.com
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-915336.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 617-810065.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-837026.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 681-013032.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 632-700803.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-862059.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 688-724060.

## 4.2. Langile bila

- Aho-haginetako higienista behar da. Jardunaldi osorako eta berehala hasteko. Bidali curriculum: hortzklinika.06@gmail.com
- Furgoneta duen autonomia behar da buzoietan banaketa-lanak egiteko astean behin. Bidali eskaintza: marisol.etakitto@gmail.com
- Basondartza Eskolarako 2019-20 ikasturterako bidelagun bila gabilta. Bidali curriculum: basondartza@gmail.com
- Elgoibarko enpresak txofer eta biltegi lanetarako pertsona behar du. Bidali curriculum: gmiren@gmail.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskeraerak

- Ekonomia irakaslea behar dut, Zuzenbideko 1. Mailarako. Tel. 685-752000.

### 5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo, Heziketa zikloak eta Unibertsitate mailako klase partikularrik ematen dira. 3 laguneko taldeak. Tel. 678-937827. Patricia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Autoaren atzekaldeko bolan lotzen den bizikleta-eramatekoa salgai. Lekua lau bizikletarentzako. 175 euro. Tel. 646-293311.
- Binilo diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 688-624326.
- Play Station 4 salgai, bi mandorekin. Oso gutxi erabilia. 200 euro. Tel. 696-817026.
- 80 zentimetrotako ohe-kabia salgai, koltxoi eta guzti. 100 euro. Tel. 695-708100.
- Gitarra elektrikoak salgai. Tel. 605-711422.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus

# Deskontu paregabeak Eco Move Days

Hilabete honetan bakarrik



## 8.000€-ra

arteko deskontuarekin

Banco Cetelem S.A.U.rekin finantzatzuz gero

Zorioneko zaude, hilabete honetan Hyundairen **Eco Move Days** esku-eskura jarriko dizugu-eta. Zatoz eta aldatu lehengo autoa Hyundai berri ekologikoago baten truke, eta eraman ezazu **8.000 €-ra arteko deskontuarekin**. Zeren zain zaude? Zatoz hurbilen duzun kontzesionariora, eta aldatu, Hyundairen Eco Move Days-ekin. Hilabete honetan bakarrik.

### OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIUZKOARAKO  
WWW.OARSOCAR.COM

### GRUPO EASO MOTOR

### ELGOIBAR

Olaso Polig., 17  
943 74 14 80

Erakusketa berria

### ARRASATE

San Andres Auzoa, 6  
943 79 70 06

### HYUNDAI

**5** km MUGARIK  
GABEKO BERMEA

Hyundai i30 gama: CO<sub>2</sub>-emisioak (gr/km): 118-153. Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,5-6,7. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo- eta emisio-balioak. CO<sub>2</sub> emisioak (gr/km): 96-139, NEDC ziklo korrelatuaren arabera lortuak. Hyundai Tucson gama: CO<sub>2</sub>-emisioak (gr/km): 143-198. Kontsumo mistoa (l/100 km): 5,5-8,7. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo- eta emisio-balioak. CO<sub>2</sub> emisioak (gr/km): 113-173, NEDC ziklo korrelatuaren arabera lortuak.

Tucson 1.6 GDI 96,4 kW (131 ZP) 4x2 Edizio Bereziari aplikatuko zaio deskontua. 8.000 €-ra arteko deskontua izango du ibilgailuaren prezioan, BEZa, garraioa, matriculazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena barne. Hyundaira Aldaketa Plana aplikatu daiteke erabiltako auto baten truke, 6 hilabetearekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren titulartasunpean. Ez dira sartzen finantzaketari lotutako gastuak (Komisioak, Interesak edo Aseguru Programak). Hyundai MOVE produktuarekin Banco Cetelem SAren bidez finantzatzen duten bezero partikularrentzako eskaintza. Gutxienez 13.000€ 36 hilabete epean eta gutxienez 36 hilabetez. Finantza entitateak aztertu eta onetsi beharrek finantzaketa. Eskaintza honek 2019/12/31ra arte balio du. Bistarutako modeloa: Hyundai i30 N Line, i30 Fastback N Line eta Tucson N Line. Informazio gehiago Hyundai kontzesionarioen sarean edo hyundai.es helbidean.

# Gabon Zoriontsuak Denoi



## Informaticando

# INFORMATICANDOTIK GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

URTE BERRI ON 2020

**%30eko deskontua**

**bilduma berriko eguzkitako betaurreko**

**GUZTIETAN**

Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
**EIBAR**

[www.multiopticas.com](http://www.multiopticas.com)   

**MULTIÓPTICAS**